



- **Juan Kruz Lakasta** «Zenbait erdaldun gu ez ikusten tematzen dira»
- **Sauveur Bacho**, Frantziako senaturako hautagaia «Euskal Herriko lurralde elkargoa bultzatuko dugu Parisen»
- **Net Hurbil** Mirabeak, desberdintasun sozialaren biktima
- **Séchu Sende** Umorea estrategiatzat duen soziolinguista galiziarra

Donostiako Nazioarteko Zinemaldia • Filmak hautatzeko irizpideak
• 90etik aurrerako AEBetako zinema beltzari errepasoa

Libiako Amazigh herria

Aro berri baten esperantzaz



XABIER LETE GOGOAN

IRUÑEA

Eñaut Elorrieta (KEN ZAZPI)
ERRAMUN MARTIKORENA
ANTTON VALVERDE
PIER PAUL BERZAITZ
ARANTXA IRAZUSTA

PETTI

Poeta: HEDOI ETXARTE

Bertsolaria: AMETS ARZALLUS
Aurkezlea: NOEL ELORGA

Irailaren 23an
Gayarre Antzokian
20:00tan

Sarrerak salgai:

Gayarre Antzokia (www.teatrogayarre.com)
Karrikiri denda

Babesle Nagusia



Babesleak:



BAIONA

Eñaut Elorrieta (KEN ZAZPI)
PIER PAUL BERZAITZ
ARANTXA IRAZUSTA
ANJE DUHALDE

PETTI

Bertsolaria: AMETS ARZALLUS
Aurkezlea: PANTXIKA MAITIA

Irailaren 24an
Baionako antzokian
20:30etan

Sarrerak salgai:

www.kutxa.net (943 00 12 00), Elkar (Baiona),
Kalaka (Garazi), Xaia (Pausu), Gure irratia (Uztartize)

Babesle Nagusia





Azaleko argazkia:
KARLOS ZURUTUZA
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2011ko irailaren 18a, 2.290. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Edurne Ormazabal:** «Ez pentsa EITB betirako denik!». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Libiako amazigh herria.** Egunsentia gizon askeen mendietan. KARLOS ZURUTUZA / 5

Pertsonaia

- **Juan Kruz Lakasta:** «Euskalerrria Irratia ikur bihurtu da euskaltzaleentzat eta euskararen aurkakoentzat». REYES ILINTXETA / 10

Gaiak

- **Park Min Ung, Koreako KPL sindikatuko burua:** «Komertzio librearekin multinazionalak gobernuak baino gehiago agintzen dute». SUSTRAI COLINA / 16

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Ttakun (h)errenka** Madrilatik zerura. UXUE APAOLAZA / 20
- **Ezpata-dantzek erotuta.** OIER ARAOLAZA / 21
- **Hiruko txikian** Zerk izutzen. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Konstituzioaren erreforma.** MIKEL ZURBANO / 22
- **Txandan** Hizkuntz eskakizunak. JOSU AMEZAGA / 22
- **Zirtak** Diogenesen oroitzapenak. JULEN GABIRIA / 23
- **Bertso berriak** Tximu baten gogoeta. MIREN AMURIZA / 24

Erdiko kaiera

- **José Ángel Herrero-Velarde, Zinemaldiko film hautatzailea:** «Gorrito ditudan filmak eman ditugu Zinemaldian, normala da». MIKEL GARCIA / 25
- **Zinemaldia.** American Way of Death: pipa hartzia lizentzi. HARKAITZ CANO / 29
- **Liburuak** S. RUIZ GONZALEZ / 32 • **Diskoak** I. BARANDIARAN / 33
- **Ezpalak** JON TORNER / 34 • **Abarrak** GORKA BEREZIARTUA / 35
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 36
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 38
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 39
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

Termometroa

- **Sauveur Bacho, Europe Ecologie Les Verts-Régions et Peuples-eko hautagai-burua:** «Senatari izan gabe ere, gure aldeko sostengua ageriko da». MIKEL ASURMENDI / 41
- **Séchu Sendé, soziolinguista galiziarra:** «Landa eremua indioen erreserba modukoa da, oraingo». O. IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Gaur ere mirabeak gauak laburrak eta egunak luzeak. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Artopila behintzat.** BIXENTE SERRANO IZKO / 50



“Ez pentsa EITB betirako denik!”

Edurne Ormazabal I
Behin-behineko lanpostuan

Gaztea-ko zuzendari ohia, EITB.com-eko egungo arduraduna, Zinemaldiko galen gidari glamurosoa, *Katu Kale* programa mitikoaren aurkezlea, tolosarra...

SUSTRAI COLINA
Argazkia: Dani Blanco

1990etik gaur arte EITBko zuzendaritza... Susmagarria, ezta?

Susmagarria? Postu elektrikoak albistegiei eta aktualitateari lotuta daudenak dira. Nori inporta zitzaion Gaztea bertan hasi nintze-nean? Eta EITB.com-i buruz asko hitz egiten da orain, baina orain dela lau urte?

Gaztea ez zitzaioa inori axola?! Kritika askotxo jasotzen zenituzten ba...

Beste modu batera egin zitekeela? Ziur baietz, baina konbentzituta geunden hori zela bidea eta denborak arrazoiak eman digu. Gaur egun, Gaztea 40 Principales-en gainetik dago!

Eta arrazoiak noiztik isiltzen ditu kritikak?

Kanpoko formula bat zela? Ados, baina garai hartan jende askok Radio 3 egin behar genuela aldarrikatzen zuen, eta Radio 3 ez da 40 Principales baino euskaldunagoa izango, ezta?

Auskalo, bilbotarrak nahi duten tokian jaiotzen badira...

Radio 3ren formula Radio 3k asmatu zuela uste duzu? Ez duzu usteko 40 Principalesen eredia 40 Principalesek sortua dela, ezta? Zorionez edo zoritxarrez, gure zibilizazio honetan gauza gehienak amerikarrek asmatu dituzte.

Leku ederrera etorri naiz *Katu kaleren* itzulera aldarrikatzera.

Nik ikusiko nuke, baina uste duzu musika

saio bat kontsumituko lukeen gazte batek 25 minutuko erreportajea jasango lukeela? Ongi etorri azkar kontsumitzeko pilula laburren arora!

Orain ulertu dut zuk zuzentzen duzun EITB.com-en filosofia.

Besteak sarean badaude gu ere bai. Zergatik ez dira gure produktuak gure erabiltzaileen esku egongo? Gaur egun, Interneterako estrategiarik ez daukan komunikabideak ez dauka etorkizunik.

EITBn lanpostu finko bat lortzeko, estrategiak ez, mirari bat behar da!

EITBn, beste edozein komunikabidetan, eta metalurgian! Bukatu da bizitza osorako lanpostuen eredia. Hemendik ateratzera eta beste hizkuntza batzuetan lan egitera ohitu beharko gara.

Ez al zen ba “gertu” Euskadi Irratiaren leloa?

Orain dela urte batzuk inork ez zuen zalan-tzan jartzen EITBren beharra, baina orain bai. Egunero eskaintzen dugunarekin gure izana justifikatu behar dugu. Ez pentsa EITB betirako denik!

Ez esan *Goenkalek* EITBk baino gehiago iraungo duela!

EITBk, RTVEk, edo BBKk ez daukate etorkizun ziurrik. Kulturari lotuta dagoen eredu publikoa hankaz gora doa, eta zer gertatuko da diru publikorik egongo ez denean? ■

• ASTERO GAIA •

Libiako amazigh herria

Egunsentia gizon askeen mendietan

Gaddafiren errepresiopean lau hamarkada eman ostean, Libiako amazigh herriak berebiziko nortasun aldarrikapenari eutsi dio. Armekin ez ezik, egunkari, irratsaio eta abestiekin heldu diote iraultzari.

Testua eta argazkiak:

KARLOS ZURUTUZA

*"Udaberriaren zain geundela, udazkena iritsi zen.
Nor gara? Hori gogoratu nahi dugu orain".*

(Amazigh kanta herrikoia)



“LIBIAN GERTATZEN ARI DENA azaldu nahi diogu gure jendeari, eta gure hizkuntzaz”. Zalantzarik gabe, Muhamed Khalifaren erronka oso gertukoa gertatzen da gurean. Khalifa *Mendietako Oihartzuna* astekariaren erredaktore burua da. Kazetariak “amazigh” etniakoa dela dio, “berbere” hitzarekin ez duela lotzen, “inondik ere”. Hauxe, beraz, lehen ikasgaia: “amazigh”ek “gizon askea” esan nahi du.

Naluten gaude, Libia mendebaldeko mendikatean. Gerra zibila joan zen otsailean piztu zenetik, gizonak besterik ez dira gelditu herri honetan. Borrokatzeko adinean daudenak, jakina. Euren familiak Tunisian babestu dira sei hilabetez, hain izan da handia tunisiarren eskuzabaltasuna krisi honetan. Zorionez, ia libiar errefuxiatu guztiak bueltan dira etxera dagoeneko.

“Libiako orainaz eta etorkizunaz mintzo gara, betiere iragana ahaztu gabe. Aste honetako edizioan, hain juxtu, hiru hitz oso garrantzitsu gogorarazten dizkiegu gure irakurleei: “tilele”, “agrauli” eta “tagraula”; “askatasuna”, “borrokalaria” eta “iraultza”, dio Khalifak, harro, inprimatzen

Goian, amazigh gerlariak Gaddafiren tropei kendutako armamentua miatzen. Ezkerrean behean, Jefrengo eskola. 46 umek ikasten dute, 11 irakasle boluntarioekin.

Amazighen herriak defentsa ikuspegia jarraituz eraiki ohi dira. Batzuk lur azpiko kobazulo sareetan “galtzen” dira; beste batzuk mendi gaineko harresi gisa altza dira

dituzten 500 aleetako bat eskuan duela. Amazigh alfabetoa erakusten duen zutabeak beste titularren artean aurkitu du bere txokoa: “Tripoli errebeldeen esku”; “Iraultzaileak Sirtera bidean”...

Mendietako Oihartzuna Libiako Nafusa mendikatean argitaratu berri diren astekarietako bat da. Gaddafiren kontrako oldarraldia piztu zenez geroztik, herrialdeko amazigh herriak berebiziko kultur esnatzea bizi du. Tunisiako muga-igarobidea mendean hartzea ezinbestekoa izan da horretarako. Aldi berean, ezin ukatu orografia lagun izan dutela bertakoek.

Sei hilabeteotan, fronte ugartan borrokatu dute Libiako amazighek: basamortuko lubakietan nahiz inprimategietan. Baita “aire”an ere: “Transmisore on bat edukiko bagenu, haraneko herri eta hirietara iritsiko ginatke erraz. Tamalez, 70 kilometroko erradioa besterik ez du hartzen gureak”, kexu da Tarik Yerro, Nalut Aske Irratiaren burua. Gainontzeko lankideak ez bezala, Yerro ez da iritsi berria irriti munduan. 2002az geroztik aritu da lanean, eraikin honetan-txe. Egoera, baina, biziki aldatu

“Gizon askeak” ala “Satanen semeak”?

“Arabiar, pertsiar, greziar edota erromatar herria beza-lako talde sendo eta leinu nobleduna da amazigha. Eta Magreben bizi izan dira hasiera-hasieratik”.
Ibn Khaldun, XIV. mendeko arabiar historiagilea.

Egun, 40-50 milioi amazigh daude Maroko, Aljeria, Mali, Niger, Tunisia eta Egipton sakabanatuta. Adituek diotenez, Ipar Afrikan dute jatorria herri honetako biztanleek. Berbere hitzaz ezagunagoak izan arren, amazighek ez dute gustuko izendapen hori, latinetik hartutako “barbaro” sustrai berekoa baita. Amazigh “gizon askea” erabiltzen dute beraiek, eta imazighen pluralen. Euren hizkuntzari tamazight deitzen diote eta afroasiar hizkuntz familian sailkatu dute adituek.

Egungo amazigh gehienak suni musulmanak izan arren, kristau gutxiengo batzuk aurki daitezke oraindik

Aljeriako Kabilia eskualdean. Aldi berean, 1960 arte judu amazigh komunitate sendoa zegoen Marokon. Antzinako amazigh ezagunenak, besteak beste, Masinisa numidiar erregea eta Apuleio erromatar idazleak ziren. Amazighak ziren baita ere Hispania konkistatu zuen Tariq ibn Ziyad jenerala, Ibn Batuta Erdi Aroko esploratzailea edota San Agustin eliza burua. Egun, Zinedine Zidane futbolaria da herri honetako kiderik ezagunena.

Wikileaks sareak filtratutako kable guztien artean amazighekin zerikusia duten hainbat topatu dira. Muammar al-Gaddafiren garaian tamazightaren irakaskuntza debekatu zen eta Wikileaks-ek filtratutakoaren arabera honako mezua igorri zien amazighe libiar koronelak: “Nahi erara deitu al diozue zuen buruari etxe barruan (berbere, Satanen semeak...) baina libiarrak besterik ez zarete etxetik kanpo”.

omen da azken hilabeteotan: “Irratiaren erai-kinak dituen lau geletatik bakarra baino ez zen erabiltzen lanerako. Gainontzeko hiruetan Gaddafiren polizia politikoa zegoen beti. Hamid nire lankidea zenak sekulako jipoia jasan zuen behin, gauden gela honetan, hain zuzen. Bere delitua, amazigh abesti bat txertatzea programazioan. Lehen hitz arrotzak entzun bezain laster, poliziek hura hartu, egurtu eta atxilotu zuten”, gogoratu du langile beteranoak, te eta datilen otordu aurrean. “Jaunkoia lagun, hemen ez da horrelakorik gertatuko berriro ere”.

Nafusako ahotsik ezagunenetakoa da Muhamed Alirena, bera baita irratiko aurkezlea: “Atzerrian odontologia ikasten ari nintzela piztu zen oldarraldia. Ikasketak eten eta berehala bueltatu nintzen etxera nire herriari laguntzearren. Ez naiz gai arma bat maneiatzeko baina lagun batek esan zidan ahots bikaina neukala irratirako eta, tira, hemen nago gaur”, dio 21 urteko gazteak. Irratigintza eta bere dentista ikasketak partekatu nahiko lituzkeela dio, “dena bukatzen denean”.

Ordurako, amazigh telebista ez da gauza berria izango. Momentuz, albistegiak euren hizkuntzaz ikus ditzakete bertakoek egunero, 15:30etik 16:00tara. Gerra zibila piztu zenetik, Qatarrek era anitzeko laguntza eskaini die matxinoei: armak, dirua, errefuxiatu guneak Tunisian eta tamazight hizkuntzako telebista programak. Asmatu badaiteke ere, ikusteke dago oraindik arabiar emirerriak exijituko duen ordaina.

Larrialdi egoera

Esan ei da Nafusako amazighak eta arabiarrek elkarrekin mendetan bizi izan direla han.





Edonola, Libia mendebaldeko mendikatean dauden hogei bat herrietatik, bakar batean topa daitezke talde bietako kideak. Rehibat herrian ez ezik, gainontzeko guztiak “etnia bakarrekoak” ditugu: amazightarrak ala arabiarak.

“Amazighak ez gaituzte gogoko arabiarrok. Iritsi berriak garela diote, mendi haue-

tan mila urtetik gora eman baditugu ere”, zioen Saleh Gerhyan zintandarrak. Zintan da, hain juxtu, arabiarren herririk handiena Nafusa mendikatean.

“Arabiarrekin nahastu izan bagina gure hizkuntza galduta genukeen dagoeneko”, argudiatzen dute amazigh askok. Antza, hizkuntza da, eta ez besterik, milaka urte dituen herri honen nortasun ikur nagusia.

Amazighen herriak defentsa ikuspegia jarraituz eraiki ohi dira. Batzuk lur azpiko kobazulo sareetan “galtzen” dira, labirinto hauek baitira eguzkitik babesteko aterperik onena. Beste batzuk, ordea, mendi gaineko harresi gisa altxa dira, basamortuko mehatxuetatik urrun.

Nafusa ekialdeko muturrean, Jefren dugu haietako bat. Edonola, azken hilabeteotan nekez entzuten zen “gizon aske”en hizkuntza bere kale huts eta hautsietan. Bonbardatutako ospitalea eta nonahi ageri diren kraterrak dira Jefrenek jasan duen zigorraren lekuko mutu bezain esanguratsuak. Gerra hasi zenetik ia egunero erori dira Gaddafiren GRAD koheteak herri honetan. Hori gutxi ez eta behealdetik –basamortutik– iritsi ziren soldaduek izugarrizko basakeriari ekin zioten.

Denbora beharko da, oraindik ere, bertako umeak aske eta ardurarik gabe ibili ahal izateko belztutako kale hauetan. Bitartean, ireki berri den eskolan dihardute. Lau hamarkadez debekatutako euren ama hizkuntzaz jolasten, abesten eta, funtsean, ikasten. “46 ume dauzugu eskola honetan. 11 boluntario gaude irakasle, denak emakumeak; gizonak gerran daude”, dio Sarah Hatem jefrendarrak. Emakume kementsu hau Tanit Elkarteko lehen-dakaria da. Amazigh jainkosaren izena duen taldea, herri honen kultura eta hizkuntza babesteko sortu berri direnetako beste bat baino ez da.

Tifinagh: amazighen alfabeto zaharberritua

Amazighen egungo alfabetoa herri honen antzinako eskriturretan oinarritzen da. K.a. II. mendekoak dira tamazight hizkuntzaz idatzitako lehen inskripzioak, baina adituek diotenez, askoz ere zaharragoa izan liteke. Tifinagh deitzen diote. XII. mendean geroztik, amazighek arabiar alfabetoa erabili izan dute, baita latindarra ere. Nolanahi, XX. mendean “tifinagh berria” izeneko alfabetoa erabiltzen hasi ziren. Hala, duela gutxira arte baino ez dira tifinagh berrian alfabetozko testuak inprimatu. Marokon haxe erabiltzen da gehienetan, amazigh ekintzaile askok oraindik latindar alfabetoa nahiago badu ere. Aljerian, azken hori erabiltzen da ia beti.

Gaddafik boterean eman dituen lau hamarkadetan, debekatuta zeuden amazigh herriaren argitalpen oro Libian. Baina iraultza piztu zenetik, herrialdeko gutxiengo handienak alfabeto zaharberrituari eutsi dio plazara etengabe ateratzen ari diren argitalpenetan. Hori bera erabiltzen da Qatarretik emititzen ari den telebista amazighen programazioan.



Ezker-eskuin: Muhamed Khalifa Mendieta *Oihartzuna* astekariko erredaktore burua; Nalut Aske Irratiko Tarik Yerro eta Muhamed Ali; Tanit elkarteko lehendakari Sarah Hatem, tiffinagh alfabetoa alboan duela; eta Madghis Buzakhar atxilotu ohia.

Horrelako ekimenek atxiloketa, tortura eta, agian, exekuzioa ere eragin zezaketen duela oso gutxira arte. Eskolan bertaratu den Madghis Buzakharrek ederki asko daki: “Joan zen abenduan Gaddafiren poliziak anaia eta biok atxilotu gintuen. Urteak eman ditugu gure kultura eta hizkuntza ikertzen eta agenteek ‘susmagarritzat’ jo zituzten etxean aurkitu zituzten liburuak”. Buzakhar anaia “traizioa eta sedizioa” kargupean espetxeratu zituzten Tripolin. 70 egun atxilotuta eman ostean, aske gelditu ziren iraultzaren lehen egunetan.

“Zorte handia izan dugu. Izan ere, Biziarteko eta Heriotza-zigorra sailean sartu gintuzten. Anaia eta biok uste genuen aurki akabatuko gintuztela edo, zortea lagun, bizitza osoa emango genuela kartzelan”, dio 29 urteko gazteak eskolaren atarian. Baina ez dirudi eskarmentu gogorrak bere kemena apaldu duenik: “Tamazight-a hizkuntza ofiziala izateko borrokatu behar dugu aurki sinatuko den Konstituzio berrian. Bada garaia gureari eusteko”.

“Tamazight-a hizkuntza ofiziala izateko borrokatu behar dugu aurki sinatuko den Konstituzio berrian. Bada garaia gureari eusteko”

MADGHIS BUZAKHAR

Naluten bueltan, lehen umeak ikus daitezke herriko plazan azken sei hilabeteotan. Herriak bost hilabete luze eman zituen Gaddafiren bonben azpian. Behealdetik, haranetik, egunero iristen ziren koheteak, eta abisatu gabe.

Momentuz hondakinak besterik ez daude jolasteko, baina haurrak pozik daude. Munduko edozein umek bezala, bertakoek ere gogoko dute “soldaduetara” jolastea. Agian areago, norberaren gurasoak protagonista izan direnean atzora arte.

Zorionez, benetako tiroketak eta leherketak bukatu dira. Isiltasuna da nagusi Naluteko antzinako harresian. UNESCOk egun erroldatutako gotorlekuak XI. mendean geroztik iraun du zutik, basamortutik etor zitekeen eraso orori so.

Arratsaldeko zazpiak. Eguzkia basamortuan ezkututzen ari da, emeki, amazighen gotorlekua bere azken izpiak lastanduz. Egun berri bat jaioko da ordu gutxiren buruan. ■



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Juan Kruz Lakasta

«Euskalerria Irratia ikur bihurtu da euskalzaleentzat eta euskararen aurkakoentzat»

Buru argia. Iruñerriko Euskalerria Irratiko abiadura handiko mingain zorrotza. Aktualitatearen aldi bereko interpretea. Intsumiso bokaziozkoa. Umorezale amorratua. Juan Kruz Lakasta kazetari poliedriko eta multimedia, serio demonio ari da lanean denboraldi berriaren hasmentan.

REYES ILINTXETA

Argazkiak: Dani Blanco

Zein izan zen zure lehen kontaktua irratiarekin?

Erreferentziei doakienez nahiko eklektikoa izan naiz. Edo desorekatua, nondik begiratzaren zaion. Asko gustatzen zitzaidan Don Goyo haurrentzako saioa, *Microfono infantil* de Radio Requeté de Navarra. Baina baita Eskroto, Tijuana in Blue-ko abeslariak Eguzki Irratian egiten zuena ere, *Inmersión en la alcantarilla*. Edo Jose Manuel Paradak RNEn egiten zuena, *La radio de las sábanas blancas*. Horiek guztiak buruan, 17 urterekin Eguzki Irratian hasi nintzen, eta 10 urte egin nituen han, irratia, umorea eta agitazioa uztartzen. Hango lagunekin hori guztia egiteko modua sortu genuela esan liteke.

Zure lehen lan profesionala prentsa idatzian egin zenuen, baina laster bilakatu zinen "multimedia". Zenbat komunikabidetan ibili zara?

Gehiegitan, agian. Pentsatzekoa da bat baino gehiago nitaz nazkatuta egonen dela. Zer eginen diogu bada. *Euskaldunon Egunkaria* sortu eta urtebetera hasi nintzen han lanean. Garai haietan *Nafarkaria* gehigarrian lehenbiziko zutabeak egiten hasi nintzen. Idaztea, sorkuntza, betidanik gustatu izan zait asko. Baina berehala ohartu nintzen nirea ez zela luze idaztea, ez nintzela fondoko idazlea, liburugilea, baizik eta sprinterra, zutabegilea. Zortzi urte igarota aldatzeko gogoa nuen eta horrela hasi nintzen Euskalerria Irratian, 99an. Handik gutxira telebistan aritzeko

aukera izan nuen. Hiru hilabeteko esperientzia zaila izan zen *Sorginen laratzan* parte hartzea. Eguneroko saioa zen, intentsitate handikoa. Berehala kiskali nintzen eta arantza hori sartuta gelditu zitzaidan, nahiz eta ondoren beste esperientzia gehiago izan telebistan, iritzi emaile eta gidoigile bezala. Ondoren Susana Mujikaren eskutik Euskadi Irratiko *Faktoria* saioko tertulietan hasi nintzen eta gerora Radio Euskadiko solasaldietan ere parte hartu izan dut, eta han jarraituko dut denboraldi berrian ere. Duela bost urte *Diario de Noticiasen* zutabegile hasi nintzen. Esaten da egungo gizartean nortasuna batez ere lanaren inguruan eraikitzen dugula, eta nik kazetari euskalduntzat jotzen nuen neure

Nortasun agiria

1970eko azaroaren 16an Jakan sortua, ama hangoa baitu, eta han bizi izan zen 3 urte bete arte. Orduan Iruñera etorri eta hemen bizi da egun. Udal Ikastolan, Irubide institutuan eta EHUn ikasi ondoren kazetari lanetan aritu da hainbat komunikabidetan. Gaur egun Euskalerria Irratiko esataria da, goizeko *Pasahitza* saio-ko arduradunetako bat, eta Osasunaren futbol partidaren narratzailea. Horretaz gain, *Diario de Noticiasen* zutabegilea da eta *Berriako* kolaboratzailea *Serio Demonio* tartean, besteak beste.



SERIO DEMONIO. Making Of

...Gizarte kontuak... Gipuzkoako Diputazioa..
 ..Barcina... Hauteskundeak... Bilboko metroa...
 Ekonomia... PSN... EAJ-ren jarrera... Bildu...
 ..Atzo irakurri nuen...

Nik, handitzen naizenean,
 bera bezalakoa izan
 nahi dut!!!



Berria sortu zenetik Juan Kruz Lakasta kazetariak eta Patxi Huarte 'Zaldieroa' marrazkilariak igandero asteak eman duena zorrotz eta umorez aztertzen dute *Serio Demonio* atalean. "Patxi Huarte aspalditik ezagutzen dut, lehengusinarene laguna baitzen. Ondoren harremana Eguzki Irratian sakondu genuen. Oso sortzaile berezia da, oso emankorra eta mundutik oso ikuspegi berezia duena eta berarekin moldatzea oso erraza da. Hasiera batean tabernan elkartzen ginen; orain, aldiz, topaketa telefonikoa egiten dugu asteen behin. Saiatzen gara pentsamendu kritiko umoristikoa zabaltzen eta geure buruaz barre egiten". Hau da Juan Kruzek esan diguna. Irudian, aldiz, Patxi Huartek Juan Kruzi buruz galdetuta erantzun diguna.

burua. Horregatik proposatu zidatenean gaztelaniaz idaztea nolabaiteko zorabioa sentitu nuen, baina, aldi berean, gaztelania ene ama hizkuntza da eta maite dut. Horrekin ere gozatzen dut. Gaztelaniaz idazten hasi nintzenean oso gauza berezia gertatu zitzaidan senide, lagun, ezagun askorekin. "Kontxo! Egunkarian zure zutabea irakurri dut. Egia da kazetaria zarela", esaten zidaten, ordura arte egiazki kazetaria nintzela sinetsi izan ez balute bezala, euskaraz aritzea egiazki ez aritzea balitz bezala. Euskaldunok bisibilitate arazo handiak dauzkagu. Baina zenbait erdaldun gu ez ikusten ere tematzen dira.

Nola lortzen duzu eguneroko presioari eta erritmo frenetikoari eustea?

Akatsak bertute bilakatuz. Ikasle alferra nintzen, azken orduan ikasten nuena. Gauzak azken unean egiteko joera hori bertutea da gaurkotasunarekin lan egiten duzunean. Bestalde, beti oso dispartsoa izan naiz, atentzioa honetan eta hartan jartzen nuen, baina ezer-

tan denbora gehiegi eman gabe. Eta joera hori ere ongi dator kazetaritzan. Badakizu kazetaritzari buruzko esaera zaharrak zer dioen: denetarik zerbait dakigula, baina deusetaz ez dakigula dena. Akats batetik ez datorren bertuteren bat ere badut. Kazetaritza beti gustatu izan zait asko. Beti izan da nolabaiteko pasioa niretzat. Beno, pentsatzen jarrita, hori ere akatsa izan daiteke. Kazetariok profesionalki zer etorkizun beltza dugun ikusita, kazetaritzarekiko pasioa akats larria da.

Euskalerrria Irratian hamabi urte daramazu. Horren bikoitza, hogeita lau, darama irrati honek lizentziarik gabe emititzen.

Nire jarduera profesionalean ardatza da Euskalerrria Irratia gaur egun, kuttunena eta identifikaziorik handiena eragiten didana. Hori hala da irrati honek pairatzen duen egoerak oso berezia egiten duelako eta irrati dudalako medio guztien artean gustukoena. Iruditzen zait Euskalerrria Irratia badela potentzial ikaragarria duen irrati. Agian akzio-erreakzio dinamika

horretan azken bolada honetan gure indarrak higatu dira eta berpizkunde baten premia larri samarra dugu, baina euskal hiztunen komunitatearentzat ezinbesteko erreferentzia eta elkarren berri izateko tresna garela uste dut. Ezin dugu ahaztu orain arte lortu duguna, sekulakoa baita: gizarte zibilean errotzea, 800 bazkide biltzen duen elkarte, ehundik gora kolaboratzailek osatutako sare guztiz profesionala, batere kobratu gabe lan egiten dutenak, eta honetaz gain baditugu iragarleak eta entzuleak, krisiak krisi fideltasunari eutsi diotenak. Sekulako lorpenak dira. Iaz hasi ginen *on line* emititzen eta orain webgunea birmoldatzen ari gara, zerbitzu are hobea emateko asmoz. Euskalerrria Irratia ikur bilakatu da euskalzaleentzat eta euskararen aurka daudenentzat ere bai. Berez duen garrantzia baino handiagoa hartu du Nafarroako agenda politikoan.

Nola ikusten duzu, oro har, komunikabideen egoera?

Gaizki, oso gaizki. Horregatik hasi naiz posta bidezko makrame ikastaro bat egiten, CCCk eskaintzen dituen horietako bat, beste irtenbide profesional bat prestatzeko. Industria birmoldaketa dator kazetaritzara, bere garaian metalgintzara, Euskalduna eta halakoetara heldu zen bezala. Batetik, krisi ekonomiko orokorra dago eta bestetik, komunikabideei soilik doakienez, paradigma krisia, Internetek eragin duena. Gainera hori guztia iritsi da informazioaren merkantilizazioak kazetaritzaren mundua oso ahulduta zue-nean, kazetariaren beraren estatua oso higituta zegoenean. Komunikabide tradizionalen artean, egunkariak erortzen lehenak izaten ari dira, baina besteek ere kontuz ibili beharko dute, Internet modu berriak sortzen ari delako telebista ikusteko edo irratia entzuteko, You Tube edo pod-castak direla medio. Jakina, Internetek baditu bere gauza onak, ikaragarri onak. Komunikazio tresnen demokratizazioa ekarri du, horizontaltasuna eta abar.

Umorea

“Niri pentsamendu kritikoa gustatzen zait eta hori jorratzen ahalegintzen naiz. Irudipena dut umorea oso bitarteko egokia dela horretan jarduteko. Zenbait gauza oso serio edo tabu direnak umorearen bitartez ukitzen ahal dituzu. Zeure buruaz barre egitea, eta umoreak edo ironiak ematen dizun distantzia hori oso gomendagarria da”.

Baina Interneteko alternatibak oraindik ez dira gauza komunikabide tradizionalak zuten funtzioa betetzeko. Sare sozialetan-eta, esteka gehienek komunikabide tradizionalen dute sorburua. Komunikabide tradizionalen artean bizirautea lortzen dutenak indartsuenak dira. Eta indartsuenak eskuindarrenak izan ohi dira. *Enpin...*

Zure zutabeetan sarri hitz egiten duzu mugimendu sozialen alde. Zuk zerorrek urtebete kartzelan eman zenuen intsumiso izateagatik. Nolako oroitzapena duzu?

Oso aspaldiko kontuak dira. Duela 20 urtekoak. Ez, ez, duela 25ekoak! Aitona tipulina, *abuelo cebolleta* ematen dut. Azkenean, intsumisioak soldadutzaren antzeko funtzioa bete du gure bizitzetan. Intsumisioaren garai-lagunak soldadutzakoen antzekoak dira: bizitza guztirako lagunak. Eta afaltzeko elkartzen garenean, soldadutzako istorioen orde, espetxeak kontatzen ditugu. Tira, kartzela beti da gogorra, kartzelarien agintekeria, kru-delkeria, injustiziak, miseria... Baina gu 40 intsumiso ginen modulu berean, eta oso harro ginen egiten ari ginenaz, eta gainera azkenean partzialki irabazi genuen, armada ez zen desagertu baina soldadutza bai. Beraz, ez zen esperientzia batere traumatikoa izan. Aitzitik, oso aberasgarria izan zen, ederra.

Hemen Iruñerrian gainbehera al dator jarrera inkonformista? Desobedientzia zibilaren azken mohikanoen garaia da?

Socratesek jada esan zuen bere garaikoa inoizko gaztedirik okerrera zela. Ez naiz ni halakotetan hasiko. Estatuak azkenaldian asko gogortu du desobedientzia zibilaren aurkako errepresioa. Orain, duela 25 urte baino askoz gogorragoa da halakoetan jardutea. Esaterako, bi urteko espetxe zigorra eskatu zuten Iruñerria Piztera Goazeko okupentzat, eserialdi baketsua egiteagatik. Orain zailagoa da. Eta are zailagoa izanzen da hemendik aurrera, argi

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunak artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

GALDE SHORTA

Bertutea?

Irratian, batez ere, jarioa eta etorria.

Akatsa?

Irratian, batez ere, gehiegizko jarioa eta etorria.

Azken urte hauetan poz iturri handiena?

Alabatxoa.

Kezka iturria?

Alabatxoa ere bai. Pertsona bat mundura ekarri eta nahi duzulako ahalik eta hobekien hezi, eta saiatzen zarelako ahal den bitarteko gehien ematen pertsona ona izan dadin, independentea eta kritikoa. Eta hori ez da erraza.

Noizko liburu bat?

Gaztetan Iruñeko Udalaren egile berrientzako saria irabazi nuen pare bat aldiz, eta argitaletxe batek baino gehiagok liburua idazteko proposamena egin zidan. Ipuin-liburu bat idatzi nuen, baina kaxoian sartuta geratu zen. Garai hartako literaturaren Julian Gorospe izan nintzen: sekula gauzatu ez zen promesa. Lehen ere esan dut: idazten sprinterra naiz, zutabegilea, ez dut gaitasunik distantzia luzea-goak betetzeko.



leak, gu garela azken irrati euskalduna (hemen Euskalerrria Irratian), gu garela azken mohikanoak... Bistan da gazte jendea erakartze aldera eta belaunaldien artean euskara pizteko horrek ez duela balio inondik inora ere. Diskurtso askoz interesgarriagoak sortzen ari dira funtzionaltasunarekin lotuak, adibidez, eta mezuak gaurkotzea ezinbestekoa da. Bestalde, sententzia daukat arazo bat dagoela, Fermin Etxegoienek esanen lukeen moduan, gaur egungo hiri giroko gazte askorentzat euskara ez da *cool*, ez da *guay*, ez da kaletarra, baizik eta gurasoek eta eskolak inposaturikoa. Etikaren diskurtsoak arazo estetikoak dakartza.

Barcina, Nafarroako lehendakari berria.

Nik esanen nuke Barcina anderea bere lanean, jendaurrean eta irudiari dagokionez, oso ona dela. Baina hori baino gehiago da. Estratega politiko ona ere bada. Politikan sartu zenetik oso garbi eduki du zer nahi zuen eta nola egin nahi zuen aurrera. Batzuen alde eta besteen aurka agintzen du, bereen alde eta besteen aurka. Eta besteok, kontra egin diogunok, ez dugu hori behar bezala ulertu, eta aurrez aurre kontra eginez bera eta bereen aurka, lider karismatikoaren irudi hori indartzen lagundu diogu. Dena dela, Nafarroan hainbeste urteren ondoren gauza berberenguz inguruan protestak eta aldarrikapenak egiten jarraitu behar izatea, ez da erraza. ■

baitago ongizate estatu gutxiago eta estatu polizial gehiago izanen dugula. Ikusi beharko da zer gertatzen den. Marxista klasikoek esanen lukete krisiarekin iraultzarako baldintza objektiboak sortu direla. Baina ez dago horren argi subjektu iraultzailerik ba ote den. Twitterren baten batek Londreseko liskarren kontura bota zuen gazteak kontsumitzaile izateko hazi dituztela eta orain matxinatzen direnean ez dutela eskubideak aldarrikatzeko egiten, baizik eta telebista bat lapurtzeko. Baina bestalde Espainian, M15 mugimendurekin, edo Grezian, leku askotan, oso mugimendu interesgarriak sortzen ari dira. Ni honetan baikor naiz. Ez dut uste azken mohikanoen aurrean gaudenik... Sindrome hori gehiago ematen da euskaltzaleen artean.

Euskararen etorkizuna nola ikusten duzu?

Uste dut tremendismo gehiegi egon dela honen inguruan urtetan eta nago hori aldatzen ari dela eta sortzen ari direla, Interneten batez ere, euskalgintzaren nolabaiteko birfundazioa egiteko, euskaldunok erabiltzen dugun diskurtso soziolinguistikoa berritzeko proposamen berriak. Beti esaten ari gara euskara maite behar dugula desagertzen ari delako, gu garela azken euskaldunak, gu garela azken euskaltza-

GURE IZARRAK

MIKEL INSAUSTI
IRATXE FRESNEDA
KOLDO LANDALUZE

GARA 

Honako hauek dira, egunero, GARAn, Zinemaldiko kritika hoberenak
eta informazio osatuena eskainiko dizkizuten taldeko aurpegi ezagunenak.

«Komertzio librearekin multinazionalek gobernuek baino gehiago agintzen dute»

Bost milioi afiliatu dituen Koreako laborarien liga (KPL) sindikatuko burua da Park Min Ung. Bere kezkak, zauriak, borrokak eta ametsak kontatu dizkigu. Zorionez edo zoritxarrez, ez dira merkatuak globalizatu diren bakarrik.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Hego Korea garapen teknologikoaren puntaren puntan dabilen herrialdea da guretzat. Zer pisu dauka laborantzak? Zer indar laborariet?

Hego Koreako biztanleriaren %7a nekazaria da. Ez da proportzio handia, txikiegia aukeran, eta ondorioz hutsaren hurrena gara Gobernuarentzat. Menostu eta zapaldu egiten gaituzte, hankapean hartu, eta komertzio librea baizik ez daukate buruan. Guk badakigu horrek zer dakarren, zer kalte eragingo digun guri eta etorkizuneko laborari txikiei, eta sindikatu zein norbanako gisa, gogor borrokatzen dugu gure geroa hipotekatu dezaketen politiken aurka.

Zertan hipotekatzen du zuen geroa merkataritza libreak?

Europarekin lortutako akordioak martxan jarri eta Amerikako Estatu Batuekin akordiotik hurbil dauden garaiotan, Gobernuak komertzio librearen onurak baizik ez dizkio saltzen populu korearrari. Hori hala, jendea ez da ohartzen kanpotik dirdiratsua baina barrutik ustela den sagarra bezalakoa dela merkataritza librea. Justua dirudi, eraginkorra, emankorra, gozoa, baina gero... AEBekin erdiestekotan diren akordioan, esaterako, jendea ez da jabetzen lege internazionala lege korearraren gainetik jartzekotan direla, eta horrek txikienari egiten diola kalte. Dirua daukaten korearrek diru gehiago irabaziko dute, baina zer gertatuko da besteekin? Desberdintasunak handitu baizik ez dira egingo, eta guk hortik ez dugu xentimorik ikusiko. Adibidez, gizarte segurantzari dagokionez, uneotan Koreako Gobernuak denek eskain-

tzen die babes, baina AEBek osasun sistema pribatu batera eramanez gaituzte. Nola ordainduko ditu jateko lain justu-justu ateratzen duen laborariak halako seguru-polizak? Estatu Batuak bezalako indar erraldoiarekin akordioak ixtea orain arteko lorpen oro komunetik behera botatzea litzateke.

“AEBak bezalako indar erraldoiarekin akordioak ixtea orain arteko lorpen oro komunetik behera botatzea litzateke”

Laborari txikiek jateko lain justu-justu ateratzen badute, lurrak berenganatzeko zailtasunak izango dituzte, ezta?

Legearen arabera lurjabeak landu behar du lurra. Praktikan, alta, jabe gehienak hirian bizi diren espekulatzaileak dira. Ez dira aitzurra eta sega bereizteko gai, baina laborariak direla diote, legeari iruzur egin eta euren lurrak benetako nekazariei alokatzeko. Ederki dakite jakin, laborari gehienak lur eskasian daudela, eta soldata ateratzekotan, eremu handiagoak behar dituztela. Pentsa, laborarien %30 baizik ez da erabat bere lurretan ari-tzen. Pixkanaka-pixkanaka lurraren prezioa igotzen ari da, Gobernuak begiak ixten ditu, eta guk egiten dakigun bakarra lurra lantzea denez, irentsiak izatera kondenatuta gaude. Noiz ohartuko da Gobernuak espekulatzaileei alfonbra gorria jarriz bere teiltua harrikatzen ari dela? Korean kontsumitzen ditugun elikagaien %26a baizik ez da guk landutakoa, beste guztia inportatu egiten dugu. Ez dira ohartzen ahultasun handia dela hori?

Zuekin baino gusturago egongo da zuen Gobernuarekin Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA).

Merkataritza librearen apologia egiten dutenek



“Indar harremanen jokoan ez du beti aberatsenak irabazten. Gauza bat da bakoitzak bere gobernuaren aurka egitea, eta beste bat indarrak saretu eta neoliberalismoari aurre egitea”.

gauzak nola egiten dituzten aztertzen baduzu, astakeriatik astakeriara dabiltzala jabetzen zara. AEBek, edo hariak mugitzeko gaitasuna eta boterea duen edozeinek, euren sakelak berotzen dituzte, mundu osoa hankapean hartuz, eta jakina, arrain handiaren gosea txikiak ordaintzen du beti. Ez da nazionalitate kontua, tamaina kontua baizik. AEBetako nekazari xumeek ere ez dute inolako onurarik jasotzen MMAren jukutrietatik. Ez gara gu MMAren aurka gauden bakarrak, munduko laborari txiki guztiak daude MMAren kontra!

Zuek izan zarete, ordea, MMA sutsuen salatu duzuenak, Cancun eta Hong Kong-eko ekintzak lekuko.

2003an, MMA Cancunen egiten ari zen goibilera bat probestuz, Lee gure kamarada labankadaz immolatu zen MMAk globaliza-

zio bihozgabe, hiltzaile eta antidemokratikorako bidean jarri gintuela salatzeke. Bi urte geroago, MMAk Hong Kongen burutu zuen 6. gailurrean, KPL-ko 900 pertsona joan ginen MMAren aurka borrokatzera, horietako asko eta asko Hong Kongeko portuko ur izoztuetan murgildu zirelarik MMAk hondoratzen gaituela oroitarazteko. Ekintza indartsuak dira, baina ez pentsa jendearen aldarri eta borrokak besterik gabe sortzen direnik. Salatzen dutenak euren bizitzetan eragin zuzen-zuzena daukalako sentitzen du jendeak egiten dituenak egiteko beharra. Barrutik ateratzen zaigulako egiten dugu, ez galeria lilurtzeko. Badakigu indar horiek katalizatzean datzala KPLren indarra. Sistemak eta egoerak eraman gaitu, behartu gaitu, indartsuago borrokatzera. Zer egin behar duzu, etorkizuna lapurtzen dizutela ikusten duzunean, orai-



Ekain berri



**Euskal
Kulturaren
sustraiak**

Sarreraren salmenta | Venta de entradas

ONLINE

www.ekainberri.com

943 86 88 11

"Noiz ohartuko da Gobernuak espekulatuzailei alfonbra gorria jarritz bere teilatua harrikatzen ari dela? Korean kontsumitzen ditugun elikagaien %26a baizik ez da guk landutakoa"

nean bertan-goxo egon? Garbi daukagu MMari aurre egiteko modu bakarra elikagaien subiranotasuna bultzatzea dela, eta horretan gabilitza buru-belarri, gurea ez baita aldarri hutsa, soluzioak ere ematen ditugu.

Zer pentsa uzten al zaitu ikusteak Koreako, Euskal Herriko edo Mexikoko laborariak, errealitate oso desberdinak bizi arren, kezka eta zauri berdintsuak dituzuela?

Laborantza industrian ari ez garen laborari guztiek munstroei aurre egin nahi badiegu, ez daukagu batu beste biderik. Esaterako, korearroi asko lagundu digu mundura begiratzeak, beste jende batek ere gogor borrokatzen zuela ohartzeak, ez etsitzeko, fatalismoan ez jausteko. Cancun edo Hong Kongeko borroketan kasu, ederra da mundu osoko laborari txikiak etorkizun hobe baten alde borrokan gabiltzala ikustea. Ederra da desertuaren zeharkaldian bakarrik ez sentitzea. MMA mugitzen dutenek ez daukate txikiarekiko inolako kontsideraziorik, baina apalak elkartuta kontra-pisu ahaltsua osa dezakegu. Denon artean heltzen baditugu, guk ere estutu ditzakegu. Indar harremanen jokoan ez du beti aberatsenak irabazten. Elikagaien subiranotasuna da iparra, eta hori internazionalizatzea lortzen dugunean norabidez aldatuko da haizea, gauza bat baita bakoitzak bere gobernuaren aurka egitea, eta beste bat indar horiek ehundu, saretu eta sistema neoliberalari aurre egitea.

Goi agintariak ez ezik, kontsumitzaileak ere zeresana daukagu horretan.

Lehen premisa MMari eta komertzio libreari



gerra egitea da laborantza txikiak biziraun dezan. Zentzu horretan, elikagaien subiranotasunaren barruan beste merkataritza eredu bat plantan ezarri beharko dugu. Ez da ahan-tzi behar klima aldaketak elikadura arazoak ekar ditzakeela, eta horri aurre egiteko munduko agintariak txipa aldatu behar dutela. Aitzitik, dena ez dago agintarien esku, gizarte osoak parte hartu behar baitu irtenbidean. Laborariak, agintariak eta kontsumitzaileak osotasun batean biltzen gara. Denak aldatzen garenean hasiko dira soluzioak iristen. Berehalako etekinak ahaztu eta arazoari adarretatik heltzeko ordua da.

Ez da samurra izango gobernuak multinazionalen konpasera dantzatzen duten garaiotan.


Koreako kasua ezagutzen dut nik, eta argigarria da oso. Gobernuak ez die korear guztiei begiratzen. Lehendik ondo bizi zirenak hobeki bizitzea du xede bakar eta beste guztiak hor konpon. Merkataritza libreko akordioak itxi nahi dituzte, MMAren eragina biderkatu, multinazionalak limurtu... Hori hala, bistan da hortik ateratzen den dirua zeinen patriketan ezkutatzen den. Ez da soborno zuzena, baina negozioa egoteko kate-begi guztiek eduki behar dute interes eta konpentsazio bat. Ez gaitezen engaina, komertzio librearekin multinazionalak gobernuak baino gehiago agintzen dute. ■

2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa



www.gpuntua.com

QR kodea



GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta

ETA HALA ETA GUZTIZ ERE, AISA DIRUDI

ELKARRRENGANABILDU!

PAIS VASCOÑO

KOMUNA FUEAL



TTAKUN (H)ERRENKA

Madrildik zerura

Ni hiltzaile izanik, narratzaileak, Beñat, ez dit biktima aukeratzaren ere utzi, bere burua jarri du halakotzat, fikziotik nire pazientzia gehiegi tenkatuz; ez du hiltzaile onen lana errespetatzen. Total, amaiera jakiteak ez du garrantzirik; irakurlearentzat izango da, hiltzaileari lana dezente gogortzen baitzaio.

DANI BLANCO



Ixne Apaolaza



Padrón



Sarasola

bapena eta krimenaren nondik norakoak emanez.

Detektibe jauna, zure *sekreta*, ohi dutenez, gaizki moztortuaz libratu garenez, esango dizut Beñat Bartzelonan hiltzen ari zela, Aita Santuaren mezara arima hutsez etortzeko moduko orduan, eta krimenaren lekura itzultea hanka-sartzea izaten

denez, fikzioan gaizkile askok egiten duen zer-bait, ni El Pradora, José de Riberaren gaztaroko koardoen artera joan nintzen, fetxa horietan ikusgai, eta tikea dut, eta krimenaren erretratuak memorian.

Beste pista/koartada bat. Chestertonek eliza katolikoa miresten zuela idatzi bazuen, besteak beste, barkamenerako eraikuntza handi bat delako, Madrilen zoratzen lebilke aitorlekuz gainezka zegoen Retiroan, eta metroak bete zituzten gazte haiekin, langileok gure lekua utzi eta zutik begiratzaren genien txartelak ere ordaindu genizkien turista nerabe haiei, bekatuak aurrez barkaturik, baina bekatu oraindik, dakizkienaren abiatu nahi kontsantantz: oso merke kendu zidan gainetik apaiz onberak Beñat hiltzearen bekatua, burutzen ez dakidan errezoren bat.

Ezingo nauzu kartzelaratu, koartada zerutiarrek ditut.

Beñat, azken oharpen bat zerutik (ez zenuten pentsatuko infernua zegoenik!), detektibeari pistak ematen jarraitzeko asmoa bazenu, edo Hamaikabatekin berriro sarkastiko jartzekoa: Rouco Varela-rekin kontaktua egin dut, hurrengo Aita Santua izan liteke bere ahotsaren botere hipnotikoa baloratzen ikasten dutenean—Jainkoarekin kontaktu zuzena frogatu zuena—. Bi astez, abortatu zuten emakume damutuei barkamena emateko bere desioa jakinarazi zigun Roucok—Chesterton poztuko lukeena—.

Nik ez nuke hil eta gero Roucoren kontaktuek imajina dezaketen infernuri bizi nahi, ezta berriro zerurik ere. ■

Beñat, azken oharpen bat zerutik, detektibeari pistak ematen jarraitzeko asmoa bazenu, edo Hamaikabatekin berriro sarkastiko jartzekoa: Rouco Varela-rekin kontaktua egin dut, hurrengo Aita Santua izan liteke bere ahotsaren botere hipnotikoa baloratzen ikasten dutenean

Errespetu falta bat baino gehiago zen. Detektibeari argiki nire kontra diren gauzak onartu dizkio, diskreziorako aukera gutxi uzten didan eta duela aste batzuk buruan hazi zaidan Amyren (Goian bego) estiloko motots hau kasu. Eta detektibe jauna, nahikoa atzeraturik ikusten zaitut ikerketan, harritzen nauen zer-bait, narratzailea, berarentzat lan egitea ohore bat izango zela esan nion narratzaile bera, *canalla* moztortu ez oso sinesgarria asmatu badu ere (nork sinesten du Hamaikabati bozkatu diola?), detektibeari alde jarri baita hasiera-hasieratik, lehen orrialdean nire deskri-

Oier Araolaza

DANTZARIA

Ezpata-dantzek erotuta

Ezpata-dantzekin liluratuta, ez zeukan besterik buruan gizonak. Frantisek Pospisilek Brnoko museoan egiten zuen lan, baina ezpata-dantzekiko zuen zaletasunak bere lan-eremua gainditzuten zuen, eta bere kasa hasi zen batera eta bestera haiek aztertzen. Dioteenez, emaztearen ondasunak xahutu zituen bere obsesio horren eraginez. Jakin-mina 1907an piztu zitzaion, lehen ezpata-dantzak ikusi zituenean. Ondoko urteetan ez zuen deskantsurik izan, beti hara eta hona, ezpata-dantzak ikusten eta ikertzen. Argazkiak egiten zituen, baina ezin haien bidez dantza osorik jaso. Halako batean, zinearen berri izan zuen, eta dirutza ordainduz 35 mmko kamera erosi zuen. Moraviako ezpata-dantzak filmatu zituen, baina bazekien Txekiatik kanpo ere bazirela, eta tresnak hartu eta batera eta bestera hasi zen: Kroazia, Ingalaterra, Euskal Herria...

Euskal Jaiak ospatzen ziren 1927an Baionan. Ingalaterratik, Violet Alford buru zela, Londresko English Folk Dance Society elkarteko ordezkaritza bat iritsi zen. Txekiatik, Frantisek Pospisil, zine kamera "besapean" zuela. 80 urte ondoren, Juan Antonio Urbeltzi esker ikusi ahal izan ditugu irudi horiek. Gipuzkoako, Nafarroa Behereko, Zuberoako eta Ingalaterrako dantzariak ageri dira irudietan. Hungarria da zamaltzaina kamera aurrean *antrixataka*



DANI BLANCO

maisuki dantzatzeko ikustea. Donostian brokel-dantza eta Durangaldeko dantzari-dantza grabatu zituen Pospisilek. Ez dakigu ezpata-dantzek zerikusirik izan ote zuten, baina Pospisilek gaizki bukatu zuen. Etxeko ondasunak ahituta, nazien aldeko jarrera leporatu zitoten eta museoko lana galdu zuen. Burua nahastuta, eroetxe batean hil zen 1958an.

Jeremy Carter-Gordonek ere ezpata-dantzak ditu zaletasun. Ingalaterrako ezpata-dantzak ikasi ditu bere herrian, Bostonen, eta etnokoreologia ikasketak burututa, Europako ezpata-dantzak ikertu nahi dituela erabaki du. Motxila eta banjoa hartu eta Europara etorri da, ezpata-dantzak ikusi eta ikastera. Beka txiki bat du, baina estu dabil batera eta bestera iristeko, eta patrika erabat hutsik duenean banjoa atera, emanaldia egin eta txapela pasatzen du. Frantzian, Bacchu-ber-en ezpata-dantza eta Italian, Fenestrelle eta Bagnascoko ezpata-dantzak aztertu ditu azken asteotan. Besterik esana zioten arren, Europar oraindik auto-stop eginez ondo bidaiatzen dela dio Jeremyk.

Euskal Herrira iritsi da eta euskal ezpata-dantzak ezagutu nahi ditu. Nork daki, akaso datorren mendean, zoro erromantikoren batek euskal ezpata-dantzak berpiztu nahiko ditu, eta orduan, banjoa jo eta txapela pasatzen zuen amerikarraren grabazioak Pospisilenak moduko altxorra izango dira. ■

« Beka txiki bat du,
baina estu dabil batera
eta bestera iristeko, eta
patrika erabat hutsik
duenean banjoa atera,
emanaldia egin eta
txapela pasatzen du

»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



zaituzte? Zeren
beldur bizi zarete?
Lortua zenuten

lortua, zuen normaltasuna zeuen legediarri izkin eginez gordetzea, eta –ordutegia baliatuz, eta zuen indarraren erakustaldia-ri jarraipena emanez– alarde mistoak alboratzea. Baina ez erabat, zuen Irungo eta Hondarribiako sozioek nahi luketen bezala. Eta hastapeneko denboralea igarota, kalmatzen eta berdintzen zihuan bi txanden artekoari, ekaiz artifiziala ekarri diozue zuen kontrolpeko haizegailu bortitzenak hondarribiarren aurka botaez. Tranpa eginez hartu zenuten Gasteiz eta lehorretik irabazi

Zerk izutzen

nahi duzue estropada, alarde mistoa itsasotik erredera eraman nahi horrekin. Errekako urak

irakiten eman eta bertan guztiak egosi daitezen ahaleginetan zabilatzatenak, erredura gaitzez atera zaitezke pariotik, enbatetan haziak atxikeko ur ponpak beti ditu prest lagungarri. Probokazio merkezi ari zarete eta garesti ordaindu dezakezue zuen eraso, errekekoe euren kolorez itsasora egiten baitute beti, korrante azkarrez. Eta jakina, itsasoak eman ematen du, baina kendu ere bai. Momentuz gutxiago gara baina ez gara gutxi ataka horretan jarri nahi gaitzuenak, eta Gasteiz ez dugu Kamerun. Argi ibili eta garaiz damutu. ■

Mikel Zurtsano

EHUKO EKONOMIA IRAKASLEA

Konstituzioaren erreforma

Estatu eredua liberalizatzea eta birzentralizatzea, hori da erreforma honek bilatzen duena. M15 mugimenduak egindako parte-hartze politikoaren aldeko aldarriei ezin zieten erantzun gordinagorik eman Estatu-ko bi alderdi nagusiek: ukiezina zen konstituzioa urjentziaz erreformatu –hasierako kontzientzia bera hautsita–, erreferenduma alboratuta. Haatik, ekimenaren bizkortasuna aurrekontu egonkortasunaren aldeko erreforma konstituzionalaren edukiak inolako eragin praktikorik izango ez duenean.

Badira hiru arrazoi baieztapen hau egiaztatzen dutenak. Hasteko, aurrekontuaren egonkortasun “estrukturala” aipatzen da testuan, ekonomia zikloarekin lotzen ez dena alegia. Definizio hau Europako Egonkortasun eta Hazkunde Itunetik aldendu egiten da, zeinak defizit publiko “oso” %3 gainditzea debekatzen duen. Esan beharrik ez dago itun europarraren baldintza Espainiako Estatuan lege organikoz exijituko den defizit estrukturalaren %0,4 baino zorrotzagoa dela. Estatuko betekizunak, beraz, lehengo itun europarrari men egin beharko dio. Honela, espainiar lege berriaren eragin praktikoa ezereztatu egingo da hasieratik.



DANI BLANCO

Bestetik, urjentziaz onartutako erreformak 2020ko urtea du aplikaziorako urtemuga. Zaila dirudi aurretik egonkortasuna erdiestea, hazkunderako dauden igurikimenak edo espektatibak oso eskasak direlako. Areago, egonkortasuna lortzeko politika fiskal oso murrizgarria jarri beharko dute indarrean eta, jakina, honek hazkunde tasan eragin negatiboa izango du. Ondorioz ekonomia susperraldia gehiago atzeratuko da. Esan gabe doa, neurri zorrotzenak prestazio sozialen murrizketa gehigarrien bidetik etorriko direla atzeraldia berrindartuz gero gastu publikoaren osagai ziklikoa igo ez dadin.

Eta azkenik, aipatu dudana bezala Europa mailan antzeko betekizuna indarrean egon arren ez da errespetatua izan. Esaterako, Alemaniak eta Frantziak ere ez zuten egonkortasun baldintza hori bete joan den hamarkadan hainbat urtez.

Berrikuntza eta eragin praktikoa bakarra zera da: Autonomia elkarteak egonkortasunaren mugaren betekizunera zuzenki behartuta geratuko dira lege organikoak horretara behartuta. Eta honek bete-betean eragiten dio Euskal Herriko berezko erregimen fiskalari. Kontzertu ekonomikoa zein hitzarmena eta aurrekontu politika Espainiako araudiaren menpe geratuko dira aurrerantz, beren izaera bilateral auzitan jarrita. ■

Autonomia elkarteak

egonkortasunaren mugaren

betekizunera zuzenki behartuta

geratuko dira lege organikoak

horretara behartuta

TXANDAN

Josu Amezaga



Zenbat eztabaida antzu inon euskara eskakizuna egin denean. Zenbat konplexu eta amore emate euskaldunon aldetik. Europako estatuek

ordea argiago daukate auzia. Dagoeneko (joera hazkorra izan baita), Europar Batasuneko 27 estatuetatik 23k nolabaiteko hizkuntza eskakizuna ezartzen diete beren biztanleei, gutxieneko eskubide batzuk lortu ahal izateko. Tokian-tokian ezagutza maila ezberdinak eskatzen dira (A1etik B2ra bitarte), derrigorrezko modu ezberdinak darabiltzate (derrigorrezko ikastaroetatik hizkuntzaren azterketa frogaraino), edo esku-

Hizkuntza eskakizunak

bide ezberdinak jartzen dira jokoan (familia ekarri ahal izatekoa, egoiliar txartela –beraz, lan baimena–, zein herritartasuna –beraz, politikan parte hartzeko aukera, eta abar–). Baina guztiek dute oinarri bera:

hizkuntza eskakizuna egitea zilegia du estatuak. Sue- dia, Irlanda, Txipre eta Espainia dira horrelakorik ez duten bakarrak, nahiz eta azken honen konstituzioak “espainiar guztiek” gatzelera jakin beharra ezartzen duen; hortaz bidea arautzea baino ez zaio falta.

Eta gu, gaixo euskaldunak artatu behar dituen medikuak euskara jakin behar ote duen eztabaidatzen, oraindik ere. ■

ZIRTAK

Julen Galbiza

IDAZLEA

Diogenesen oroitzapenak

Badut lagun bat, lanbidez informatikaria, denbora ordenagailuka neur-tzen duena. Aurreko batean, gazte-garaiko kontu bati buruz ari ginela, halaxe esan zidan: “Hori aspaldi gertatu zen... gutxienez duela zazpi ordena-gailu”. Nik barre egin nuen, baina lagunak serio bota zuen esaldia, mundua mugitzen duen denbora-unitate bakarra hori dela dakienaren segurtasunez.

Gero, ordenagailuen memo-rien inguruan hasi zitzaidan, ondoegi ulertu ez nuen tonu teknikoan; ondoren, ahotsa apalduz, aitortu zidan berak jada ez duela inongo konfian-tzarik bere buruarengan, eta ordenagailuen memoria erabil-tzen duela dena gogoratzeko: ez soilik telefono zenbakiak, agen-dako zereginak edo lagunen urtebetetzeak, baizik eta dena, bere bizitza osoaren kontaduria. Ikusi dituen pelikulak eta ikusi nahi dituenak, egin beharreko erosketak, egunez eguneko bizipenak, inoiz gertatuko ote diren ez dakigun ego-erak hipotetikoen aurrean egin beharre-koa, oporretan bisitatutako lekuak, gogo-ratu beharreko datu eta albisteak, bururatutako ideiak, ingurukoekin izan-dako elkarrizketak. Nire lagunak dena gordetzen du ordenagailuan; ba ote tra-mankulu hoberik norberaren mundua ordenatzeko. Diogenesen sindrome moduko bat dauka, gogoratu beharre-ko guztia gordetzera bultzatzen duena. Burua toki txikiegia baita bururatzen den guztia gordetzeko.

Nik ere aspaldi utzi nion nire memoria-rekin fidatzeari, baina are gutxiago fida-tzen naiz nire-nireak ez diren memorie-kin. Saiatzen naiz, adibidez, argazkiak nonbaiten gordetzen, baina CD, pendri-ve, disko gogor eta abarretan sartzen ditu-danean, betiko gordeta ote dauden zalantza sortzen zait, eta pentsatzen dudanean Interneteko hodeian ere gorde ditzakedala, ikara batek hartzen nau, ezin asmatuta non




INIGO AZKONA

geldituko diren, linboko zein solairutatik zintzilik. Dena baita linboa, hauskorra gai-nera, kontrolaezina eta, errematerako, ukie-zina. Nahiz eta, egia esan, izatez, oroitzapen gehienak, buruan gordetakoak ere bai, beti daude linboan, beti dira hauskorrak eta ukiezinak. Burua ere birtuala da, eta horrek ez nau batere lasaitzen.

Behin, Guardia Zibilak kontrol batean gelditu ninduen; nik, koaderno-etan erdi amaituta neukan nobe-la osoa galtzearen beldurrez, aulki azpian ezkutatu nituen blokak, baina poliziek dena miatu eta koadernoak topatu zituzten. Galdetu zidaten zer neukan han apuntatuta, hain ondo ezkutatuta eramateko. Esaten nuena esanda ere, ez zidaten sinetsiko, eta, beraz, egia aitortu nien: nobela baten kopia bakarra zela, eta galtzeko beldurratik ezkutatu nituela. Hori entzunda, koadernoak fur-gonetara eraman zituzten, eta desesperatuta pentsatu nuen modurik inozoenean galduko nuela urteeta-ko lana eta nire memoriaren zati handi bat. Ez dakit zer gertatu zen furgonetaren barruan, baina, nire harridurarako, handik denbora batera, polizia batek itzuli egin zizkidan koadernoak. Eta nik, berriz ere arnasa lasai hartu arren, pentsatu nuen idaztea ere ahalegin antzua izan daitekeela memo-riari eusteko lanean, koadernoak ere hauskorrak direlako, bereziki norbaitek hautsi nahi baditu.

Ez dut memoriarako euskarri fidagarriarik aurkitzen, baina agian neu nabil oker, inork ez baitu esan memoriak fidaga-rria izan behar duenik, edo benetakoa, edo egiazkoa. Memoria ipuin bat baino ez da, umek eskatzen dutenean bezala eurei gertatutako pasadizoren bat behin eta berriro konta diezaiezun, oroitzapenak narrazio bihurtuta. Kontua ez baita egia gogoratzea, baizik eta, sinpleki, ipuinean agertzea. ■

« Memoria ipuin bat baino ez da, umek eskatzen dutenean bezala eurei gertatutako pasadizoren bat behin eta berriro konta diezaiezun, oroitzapenak narrazio bihurtuta. Kontua ez baita egia gogoratzea, baizik eta, sinpleki, ipuinean agertzea »



irudia:

Antton Olariaga

BERTSO BERRIAK

Miren Amuriza

Tximu baten gogoeta



I

Tximua naiz, mendikoa,
ia kaiolan itoa,
agoantatu dut nahikoa!
Beraz, kantatu nahi dut barrutik
bizi ta ikusirikoa,
ez baita askoz txikiagoa
kanpoko zoologikoa. (bis)

IV

Askok barroteetatik
eskua sartu izan dit,
zer gura duten badakit...
Kosk egin eta zera galdetu
nahi izan dut kumetatik:
“Zuk laztanduko al zenuke inor
kakahuete bategatik ?” (bis)

II

Betaurrekoak, bisera,
mapa, motxila, kamera...
Zer espero duzue ba?
Nahiz gizakiok tximua ikusi
eta aho-zabal gera,
gure arteko diferentzia
hainbestekoa ote da? (bis)

V

Kobak margotu aurrena,
gero asfaltoz bete dena,
han fabrikak, hemen trena...
Gaur egun hobe estimatuko
bazenute ingurumena,
harrotasunez zeuen burua
maite duzuen laurdena. (bis)

III

Bakoitza bere kulturari,
eta dagokion gudan,
kontraesanekin mugan,
hor zabiltzate askatasuna
zeuontzako lortu guran,
baina niri inork ez dit galdetu
kaiolan bizi nahi dudana. (bis)

VI

Pertsona tximutik dator,
baina zuontzat zorraz zor,
kaiolan gara emankor.
Historiaren pendulu handiak
aldaketa bat digu zor;
nork daki noizbait egongo ez garen
zuek hemen eta gu hor. (bis)

DOINUA: Uso xuria errazu.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

José Ángel Herrero-Velarde

Zinemaldiko film hautatzailea



«Gorroto ditudan filmak eman ditugu Zinemaldian, normala da»

Zinemaldian zer ikusiko dugun eta zer geratu den kanpoan José Ángel Herrero-Velardek erabakitzen du, beste sei pertsonarekin batera. Horretarako, jaialdiaren barrunbeetan 30 urte baino gehiago daramatzan 66 urteko donostiar honek bost hilabetetan 500 film inguru ikusi ditu, egunean hiruzpalau; onartu digunez, batzuetan asmatu egiten du aukeraketan, bestetan ez.

Testua eta argazkiak:

MIKEL GARCIA

Profesioz notarioa zara, erretiratua, baina zinema kritikari aritu zinen hainbat argitalpenetan, baita Kresala zineklubeko zuzendari ere. Beti zinemari lotuta.

Gaztetxotan, nire familiari buruan sartu zitzaion hizkuntzak ikasi behar nituela eta Parisa bidali ninduten uda batez, frantsesa ikastera. 1960ko hamarkada zen eta frantsesa

ez nuen gehiegi ikasi, baina kartelera izugarria aurkitu nuen zinema-aretoetan, klasikoa eta garaikidea, hemen zentsura indarrean zegoen bitartean. Zaletu egin nintzen, bueltan Kresala zineklubean sartu eta Zinemaldia garai hartan elkarte ugari ordezkatutako batzordeak gidatzen zuenez, parte hartzera gonbidatu ninduten Kresalaren izenean.

1979tik zaude Zinemaldian. Asko aldatuko zen ordutik.

Bai, batez ere egoera politikoa. Sasoi hartan hiriak giro beroa bizi zuen, era guztietako mugimendu eta alderdi politikoak jaio ziren eta horrek haize berriak ekarri zituen, baina baita gatazka asko ere. Edozein kontuk talka eragiten zuen eta kanpotik zetozenak harritu egiten ziren hemengo liskarrekin, etortzeko erreparoa zituen industriako jendeak, pelikula ekartzeko ere arazoak genituen, Zinemaldiak lehiakor izaera galdu zuen... Dena genuen kontra. Diego Galánnek 1985ean zuzendaritza hartu zuen arte, ozta-ozta biziraun genuen, ordura arte etengabe aldatzen zuten zuzendaria edo zinemas ulertzen ez zuen zuzendariren bat jartzen zuten, eta boluntario asko zegoen, baina profesionaltasun gutxi. Oso lan baldintza zailetan aritu ginen eta urtero esaten zen azken urtea izango zela; ziur naiz urteren batean paso egin izan bagenu, betirako desagertuko zatekeela Zinemaldia. Gaur egun daukaguna, hein handi batean, urte haietan biziraun izanaren ondorio da.

Zinematografikoki ere asko aldatu dira gauzak?

200 bat film ikusten genituen orduan, aurtur aldiz ia 2.000, euskarri hobeak ditugulako eta bidaia askoz hobeto antolatuta daudelako. Ondorioz, aukeratzeko gehiago daukagu eta ekarritako pelikulen kalitatean ere eragiten du. Egia da urteko uztaren arabera ere badela, batzuetan asko ikusiagatik ez duzulako aurkitzen film interesgarriak eta beste urte batzuetan soberan dituzu.

Bereziki gogoan duzu urteren bateko uztaz?

Gogoan dut adibidez Woody Allenen *Manhattan* filmarekin inauguratu genuela behin, eta beste behin *Apocalypse Now* eman genuela klausuran, pelikula bikainak, baina ez zituen Zinemaldiak estreinatu, bigarren eskuokak ziren. Gaur egun argitaragabeko pelikula eskatzen ditugu Sail Ofizialerako eta zailagoa da maila horretako lanak topatzea, baina esaterako Cronenbergren *Eastern Promises* eman genuen duela urte batzuk eta oso film ona da.

Aldiz, iazko Zinemaldia txartat jo zuten kritikariek.

Bai, baina ez zen izan ez genituelako film onenak hartu, baizik eta urteko uztaz ez zelako ona izan. Zuzendari onak ere, berme bat ematen dizuten horiek, ez dute beti asma-

"Iazko Zinemaldia txarra izan zen, baina urteko uztaz ez zelako ona izan. Cannesko jaialdia ere oso kaskarra izan zen"

tzen. Iazko Cannesko jaialdia oso kaskarra izan zen eta Cannesko jaialdia kaskarra bada, horrek esan nahi du urteko uztaz kaskarra dela, Cannesen ez dituztelako harribitxiak ihes egiten uzten. Aurtur alderantzizkoa gertatu da: aparteko urtea izan da eta ikusi ahal izan dugunak soberan gaingitzen du iazkoa.

Hautaketa Batzordean egotea ardura handia al da?

Teorian bai, baina tira... Neketsua da, hori bai, pelikula gehientsuenekin zalantzak dituzulako baztertzeko garaian. Ongi dago, baina... zer egin? Aurtur 1.900 pelikula ikusi ditugu batzordeko zazpi kideen artean, bakoitzak batez beste 500 bat bost hilabetetan; hots, hiruzpau pelikula egunean; eta burua oso esna izan behar duzu erabakitze "pelikula hau bai, hau ez, hau agian eta beste batek ere ikus dezala", baina azken aukera hori ezin da gehiegitan baliatu. Sartu berriek beldur hori dute: "Nik ezetz esaten badut, ezetz da?". Noski, bestela denek 1.900 filmak ikusi beharko genituzke eta ezinezkoa da. Norbaiti filma gustatuz gero, ordea, ez da zuzenean sartuko, Zinemaldian ez da onartzen batek bakarrik ikusi duen pelikularik eta gutxienez beste batek ere ikusi behar du.

"Kritikak agian ez ditu aurtengo filmak hain ongi jarriko, baina publikoari gustatuko zaizkio eta niretzat hori baikorra da"

Zein irizpideren arabera hautatzen dituzue filmak?

Interesgarria izatea, betikoa kontatzen ez duen istorioa eskaintzea, aktoreek lan ona egitea... hartzen dut nik kontuan, baina batzuen eta besteen irizpideak ezberdinak dira. Nik gorroto ditudan eta Zinemaldian eman diren filmak daude, baina normala da. Esperientzia nahikoa daukat esateko "niri ez zait filma gustatu, baina beste batek ikus dezala, ziurrenik gustatuko zaio-eta". Batzordeko kide gehienek urte asko daramatzagu eta primeran ezagutzen dugu elkar, erraz lortzen dugu adostasuna eta apustuak ere egiten ditugu gure artean, zein filmek izango duen harrera beroena-eta. Nik adibidez ildo gogorreko zinema, hermetikoa, esperimentala, narratiboa ez dena ez dut atsegin, hasiera batean behintzat, baina jaialdietan ugari dira halakoak. Kritikari jakintsuek gorai patzen duten eta publiko orokorra izutzen duen zinema gaitzagoa zait, baina beste kide batek ondo baloratu dezake txarra ez bada, eta aurrera egingo du.

Iaz edo duela bi urte Madrilgo hedabideek eta industriak larrutu egin gintuzten esanaz oso zailak ziren filmak jartzen genituela, ez zirela industriakoak. Bada, horiek izan dira

gustatu zaizkigunak. Eta etorri zitzaizkigun, “nolatan ez duzue halako filma jarri?”, ez zaigulako gustatu. Dena den, oreka bilatzen ere saiatzen gara, egon daitezten industriako pare bat, beste pare bat intelektuala-goak...

Kritika horiek guztiak, industriarenak, hedabideetakoak, epaimahaiarenak... zein neurritan hartzen dituzue kontuan?

Epaimahaia beste zazpi pertsonen osatzen dute eta logikoa da gure iritziarekin bat ez etortzea, ez gaitu harritzen. Kritikari dagokionez, ez dugu dena aintzat hartzen, baina bai irakurtzen. Jaialdi honek, hainbatek pentsatzen duenaren kontra, jende asko asebate behar du: goi mailako kritika (*Cahiers du Cinéma* gisakoa), kritika lokala, publikoa, industria. Dena hartu behar dugu kontuan eta mundu guztia pozik uzteko moduko eskaintza osatzea da gakoa; badakigu halakori ez zaiola film hau gustatuko, baina gustatzen ez zaizkion filmak asko badira, kontuz!

Hainbeste urtetako esperientzia baliagarria izango zaizu Hautaketa Batzordean.

Pelikulak segurtasun handiagoarekin epaitzeko balio dit, baina hala ere denek egiten dugu huts noizbait. Duela hamabost bat urte, AEBetako film bat nik bakarrik ikusi eta atzera bota nuen, tontakeria bat iruditu zitzaidalako, eta gero oso harrera ona izan zuen beste hainbat jaialditan, zuzendaria ere famatu egin da ondoren... Pelikula asko dira ikusi beharrekoak eta denok dugu horrelako hutsen bat. Neketsua da, batez ere azken hila-betea, baina lan polita, zinema atsegin baduzu. Gainera, alderantzizkoa ere gertatzen da: *El hombre de al lado* argentinarra dago orain aretoetan eta harrera beroa egin diote kritikak eta publikoak; bada, bere garaian Zinemaldirako hautatu nuen baina kideek ezetz esan eta ez genuen jaialdian eskaini.

Aipatu duzunez, iazkoa baino uzta hobeia izan da aurtengoa. Nola dator 59. edizioa?

Ez naiz inpartziala, baina oso ondo ikusten dut, batez ere gauza oso desberdinak daude-



“Aurkikuntzak arraroak dira. ‘Jenio berria da’ esan aurretik, kontuz, lehen filma du. Zuzendariaren laugarren edo bosgarren pelikulara itxaron behar da benetan ona dela baieztatzeko”.

lako. Oreka lortu dugu eta “publiko orokorrarentzat” deituko genituzkeen film gehiago daude, beste urte batzuetan baino. Kritikak beharbada ez ditu hain ongi jarriko pelikula horiek, baina publikoari gustatuko zaizkio eta niretzat hori baikorra da. Zabaltegi eta Zuzendari Berriak sailetan ildo gogorragoa sartu dugu, zuzendari berriekin hain justu eskaintza eta alternatiba berritzaileak ekar ditzatela bilatzen dugulako, hobeto edo okerrago egina, baina ideia bereziak ekar ditzatela, harritu gaitzatela. Bereziak sailean ere inor epel utziko ez duen eskaintza dakargu, polemikoa hainbatetan, jorratzen dituzten gaiengatik eta gai horietara hurbiltzeko eragatik. Eta bukatzeko, *Intouchables* komedia argi eta biziak itxiko du Zinemaldia, jendeak barre asko egingo du eta sentsazio onarekin amaituko du jaialdia.

Baina adibidez *Torrente 4* emango duzue *Made in Spain* sailean. Horrela-koek ere badute lekua Zinemaldian?

Made in Spain atalean irizpidea honakoa da: urtean estreinaturiko film guztien artean, jaialdian ondo aritu direnak, eta horiekin batera, aretoetan arrakasta izan duten bizpahiruak, hori lortu dutenez pentsa dezakegulako zerbait badutela film horiek. Azken finean, batez ere atzerriko jendeari eta industriari zuzenduriko saila da, hemengoek aukera izan dutelako pelikula horiek aurretik ikusteko.

Bereziki harritu zaituen zuzendaririk topatu al duzu?

Harritu askok egin naute, baina hainbatek txundituta uzten zaitu bere lehen filmarekin, irrikitan itxaroten duzu hurrengoa eta ez da ona. Zuzendariaren ibilbidean laugarren edo bosgarren pelikulara itxaron behar da benetan ona dela baieztatzeko. Aurkikuntzak arraroak dira, ez dira egunero agertzen eta norbaiten *opera primaren* laudorioak tentuz hartu behar dira. Edizio honetan, hala ere, film laburrekin oso emaitza onak emanak zituen baina lehen luzea duen Provost belgikarraren pelikula [*L’envahisseur*] sartu dugu

Perlak sailean eta film harrigarria egin du. “Jenio berria da” esan aurretik ordea, kontuz, presarik gabe, lehen filma du, baina egia da gertutik jarraitu beharreko zuzendaria dela.

Nola ikusten duzu Donostiako Zinemaldia, nazioarteko jaialdi saltsan?

Jaialdi bakoitzak bere nortasuna eta helburuak dauzka, eta bakoitzak badaki non dagoen, noraino iritsi daitekeen eta zertan hobetu dezakeen. Donostia handienetan txikiena da, Venezia, Cannes eta Berlin aintzat hartuta, baina dauden jaialdi txiki andanaren artean handiena da. Latinoamerikarentzat jaialdi garrantzitsuenak gara eta akaso nazioarteko oihartzuna hobetu beharko litzateke. AEBetan adibidez ez diete jaramonik egiten jaialdi europarrei, Hollywood daukate eta haientzat zinema da zinema estatubatuarra, baina Europan eta Asian urratsak eman ditzakegu aurrera.

Nagusiki jaialdietako zinema ikusten duzu zuk, komertzialki eskaintzen denarekiko ezberdina, dudarik gabe. Zer galtzen dugu zirkuitu horretatik kanpo gaudenok?

Egia esan, urruneko herrialdeetako filmak, produkzio txikikoak, sarri ez dira areto komertzialetara iristen eta horietako asko

Askatasun handiagoa

“Zinemaldian hasi nintzenetik, esango nuke zinema ez dela ia aldatu kalitateari dagokionez. Euskarri aldetik bai, digitalizazioa-eta, baina eduki aldetik izatekotan libreagoa da, askatasun handiagoa dago bakoitzak bere esperimendazioak-eta egin ditzan, baina kalitatez berdintsua da. 1950eko hamarkadako zinema amerikarra, klasiko deiturikoa, hura bai pasa da historiara eta errepika ezina da. Oso zinema gutxi dago kalitate eta soiltasun horrekin, baliabide gutxi eta talentu handiarekin egina. Orain, oro har, baliabide asko dago eta talentu urriagoa. Alegia, egungo film kopuru oparoan, gutxi iristen dira maila gorenera. Hori bai, aniztasun handiagoa dago”.

interesgarriak dira. Gu ere jakitun gara, hala-ko filma oso ondo dagoela, baina ez dela inoiz estreinatuko. Aukera hori ez duenak zer galtzen duen? Aniztasuna, ikuspegi berriak ezagutzeko abagunea, beste herrialdeen begirada, zinema egiteko beste modu batzuk... zinema komertziala nahiko uniforme delako, genero zehatzetan lerrotatua eta oso mastekatua. Egia esan, pribilegioa da gurea, gainera lehenengoak gara pelikula ikusten eta ezin gara kexatu. ■

EGIZU HARPIDETZA
EGIOZU HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 138 € / Iparr. Euskal Herrian 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 • harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELO-PAPERRA
HEMEN IRIN

Zinemaldia

American Way Of Death: pipa hartzia lizentzi

Atea zeharkatu orduko kamareroak zeure gustuen berri dakien lokal zaharrera sartzea da zinema beltza ikustea: eskatu gabe ateratzen dizute edatekoa, bete beharreko arauak ezagunak direlako bezero zein zerbitzariarentzat. Plazer parekagarri gutxi. *American Way Of Death* zikloan, azken hogeitako zinema beltz amerikarrari errepasoa egingo dio Zinemaldiak. Zer aldatu da, ordea, genero beltzean?

HARKAITZ CANO



George Clooney, Anton Corbijn-ek zuzendutako *The American* filmean. Zikloko beste zenbait lanetan legez, hiltzaile bakartia da pelikulako protagonista.

GAUZA BAT, nagusiki: Deabruak zirrikitu bat irabazi duela. Geure baitan dugun borrarero sadikoaren kontzientzia hartu dugula. Hilketen arrazoia desarrazoirantz eta plazer psiko-tikorantz hurbiltzen dela gero eta gehiago. Garai bateko dama-joko aurrikusgarria gidoi konplexuagoetan gauzatzen dela orain. Gutxitan izan arren, gaiztoak irabazle direla. Barkatzen zaiela hiltzaile izatea, baldin eta krimena modu sortzailean gauzatzen badute —lapurrekin enpatizatzen aspaldi hasi ginen—.

Jenio txar horiek utzi

Zinema beltza, konbentzionala baino eskuza-balagoa da gizonezko aktoreen fisionomiarekin; emakumezkoenarekin ez hainbeste. Geure inkontzienteak bikotea aurkitzeko orduan simetria bilatzen duela diote, eta Hollywoodeko ekoizleak ere simetriaren alde lerratzen dira eskuarki: Cruise, Pitt, Clooney, Damon... Edertasun mota hori hobesten da. Suhi zintzoarena. Zinema beltzak, ordea, arauak hautsi eta *pipa hartzia lizentzi* duenez

(*crack* pipa zein automatikoa), asimetria baimendu eta saritzen du, sudur eta hortz okerrak, ile eskastua edo kalpar moldagaitza: Steve Buscemi, Nicholas Cage, Adrien Brody, Michael Imperioli edo Tim Roth bezalako aktoreen ibilbidea beste bat litzateke zinema beltzak eman dizkien aukerarik gabe. Tormentua, jenioa, neurosia eta patu alkoholiko-kriminala adierazteko ildokatuta dute bisajea. Ondo baliatu zuten hori Coen anaiek *Fargo*n Buscemirekin edo eta John Dahlek Nicholas Cage-ekin, *Red Rock West* filmean. Gomendagarria izan liteke bi filmok elkarren segidan ikustea, akabuko ironia parekatzeko: filmeko motorra den diruarekin zer gertatzen den batean eta bestean.

Alde ilunaren deia boteretsua da, ordea, eta zinema beltz amerikarraren karietara euren burua *gaiztoen* larruan jarri eta hiltzen ere utzi dute zenbait aktore “simetrikok”. Anton Corbijnen *The Americanen*, esate baterako, hiltzaile bakartiaren larruan sartuko da George Clooney, armagintza artesautzarekin parekatzen den istorio batean. Tom Cruis-ek ere *Collateralen* hiltzaile eskupulorik gabekoa jokatu du, eta berdintsu Denzel Washingtonek *Training Day* filmean, polizia ustelarena egin- ez —polizia ustel gehiago nahi duenak, ikus dezala *Pride and Glory*—. Kinka morala gertu da beti: *film noir* interesgarrietako ikertzaile mesfidatiak badaki legea hautsiz justizia egin edo legea errespetatu eta justiziarik ez erdiestearen artean dagoela sarri hautua. Zein da erabaki zuzena? Etengabeko ataka horrek ematen die indarra film askori.

Bestela hezurak hautsi

Biolentziaren sublimazioa egiteko modua aldatu da zinema beltz klasikoarekiko? Pistola kalibreei buruz hitz egitea eguraldiari buruz hitz egitea bezala izan dadin ohitu gara. Aurki ikasi dugu Los Angeleseko poliziak 9 mmko Beretta erabiltzen duela eta harako serie-hiltzaileak .44 kalibrea duela nahiago. Odolaren agerpena esplizitatu egin da. Behialako porno basatiaren eta *snuff movie* estetikaren irakaspenak jaso dira, bi hauei neurri *jasangarri* bat eman eta B sailari etikinak ateraz, nahiz eta nabarmena den AEBetan muga gehiago dituztela sexu eszenak grabatzeko orduan,



Reservoir Dogs eta *Zodiac* filmetako irudiak goian; lapurrak, serie-hiltzaileak... Denetik izango du *American Way Of Death* zikloak.

bortxazkoak grabatzerakoan baino —Europar, aldiz, alderantziz da—. Bi adibide: Michael Madsen *Reservoir Dogs*en belarri moztuari hizketan, edo Robert Downey Juniorren hatz ebakia izotzetan *Kiss Kiss Bang Bang* umore beltzeko film autoerreferentzian —sail honetako hainbaten arazo berbera du azken honek: hain goian hasten da, zaila baitu gero mailari eustea—.

Film gehienetan, ez gaitezela engaina, zenbait muga igarotzen dituen pertsonaia zigortu egingo da amaieran. Ez beti, jakina, eta hor dago agian azken hogeit urteotako *gaizto* askoren xarma eta ekarpena. Gogoratu *Basic Instinct* filmean ohepean agertzen den izotz-sastakaia, edo, oroz gain, Bryan Singerren *The Usual Suspects* gogoangarrian Kevin Spaceyren ahotan entzun genuen esaldia: “berau existitzen

ez dela sinestaraztea da Deabruaren trikimailurik onena”.

Eta neska mainontziak, zer?

Gizonezkoen mundu honetan, Sharon Stone eta Kathryn Bigelow apartatu beharko genituzke. Lehena, 90etako mito sexual bilakatu zelako *Basic Instinct* filmari esker, Uma Thurmanek erreleboa hartu zion arte gaizto fatalen ligan. Mikel Garmendia zenak lelo zaharberritu polita utzi zigun hari buruz: “*El hombre propone y Sharon Stone*”. Bigelow zuzendaria berriz, ambizio handiko *Strange Days* filmatik aipatu behar dugu hemen. James Cameronek bultzatutako egitasmoa izanagatik, aldendu egiten da topikoetatik, milurtekoaren amaieran kokatutako proposamen batekin: errealtate birtuala, ustelkeria poliziala eta giro apokaliptikoa nahasten dira LAko gau suburbial sutsuan. Luzeegia izatea, pena bakarra.

Tentsio sexualaz harago, saihestezina da taldeen arteko borrokak aipatzea ere: poliziek zein gaizkileek dituzten barne gatazkez eta haien arteko aurrez aurreko gain, komunitate beltz, latino eta italiarren artekoak, kasu. Hizkuntza nagusia ingelesa da, nola ez, baina bikotekideari gaztelaraz egiten zaio errietan eta mesedeak italieraz edo errusieraz eskatzen dira. “Gaztelaraz ez badakizu hilda zaude hemen” diotsa Denzel Washingtonek *Training Day* filmean Ethan Hawkeri.

**Zinema beltzeko arauak
gustatzen zaizkionak gozatuko du
gehien. Araurik nagusiena:
batzuetan ia edozer dela zilegi,
horrek hurrengo goizera bizirik
ailegatzea ahalbidetzen badizu**

Boogie Nights

Aipagarria da 1970eko hamarkadak zuzendari hauetako askoren filmografian duen pisua, haietako gehienek gaztaroarekin bat datorrelako, ziurrenik. 1960ko hamarkada amaierako protesta arrazialak, New Yorkeko *blackout* ospetsua eta garaiko egunkariak aipatutakoak sarri dira paisajearen parte. Garaian borborrean zegoen musika ere primeran txertatzen da film hauetako giroan: *disco* musika eta *groovie* edo *funk* doinuek ezin hobeto laguntzen diote erritmoari. Lorpen hau Tarantinori atxiki zaion arren, ez da bera bakarra izan, *Summer of Sam* bikainean Spike Leek egiten duen errepasso musikala itzela baita: Roy Ayers, Heatwave, Thelma Houston, Chic, First Choice, Marvin Gaye... Horiek guztiak gidoiaren parte dira ia, gatazkan sartuko baitira Adrien Brodyren pertsonaiaren bizimolde *punk*arekin.

Eszenatokiak, bestalde, Amerika Sakonaren hutsune sentipena –dela basamortukoa, dela izotzezkoa– erakutsi nahi diguten salbuespenak albora utzita, LA eta New York dira ia beti, lehena *freeway* edo zirkunbalazio laberintikoen hezurmamitze gisara, eta bigarrena, erlauntza-labirintu edo infernuaren sukurtsal den heinean. Infernuaren bertsio agorafobikoa (LA) eta infernu beraren aldagai klaustrofobikoa (NYC), funtsean. Amerika aukeraz betetako lurraldea baita. Baita gaizkileentzat ere.

Aparkatzea ere lizentzi

Nekez ulertuko genuke zinema hau autoetan erreparatu gabe: taxiak, low-rider amortiguadoredun Chevrolet Monte Carloak, Cadillacak, Corvette gorri marradunak, Lexus tuneatuak, enkarguz lapurtutako Nissan autoak...



Tom Cruise hiltzaile eskrapulurik gabea da *Collateral*en; Denzel Washington aldiz, polizia ustela *Training Day*en.

Gai dira maletategiei benetako etekina ateratzeko. Autoko kristalen gainera isurtzen ditu hiriak bere neoia, tiroak eta hilotzak. Autoetan bizi dira pertsonaiak. Erabakiak hartzeko eta konfesatzeko lekuak dira. *Diner* gurgildunak. Autoetan jotzen dute larrua, autoetan hiltzen dira. *Zodiac* eta *The Zodiac* gogoratu besterik ez dago: benetako gertaera inkieta garri baten bi bertsio ezberdin, autoetan bikote gazteak akabatzen dituen serie-hiltzailearen tarteko.

Finean, denetik aurkituko dugu American Way Of Death zikloan: pitzadurarik gabeko klasikoak (*Goodfellas*, *Miller's Crossing*, *Mystic River*), bere garaian arrakastatsuak izan ziren film komertzialak (*LA Confidential*, *Se7en* –kreditu tituluen mundua irauli eta haietan erreparatzen hasi ginen Kyle Cooperrek egindako lanari esker–), kultuzko film eskuragaitzak (*Suture*), baita film lehor bezain eraginkor askoak ere (*Little Odessa*, Brighton Beacheko mafia ukrainiarren inguruan mamitzen dena, Brooklyn gordin, negutiar eta sinesgarri baten baitan). Gaizki samar zahartu diren filmak ere badira: *New Jack City*, 80etako Bronxeko crackaren loraldia aletzen duen film kitscha kasu, Wesley Snipes protagonista duena (aukeran, giro berean, irensgarriagoa da *Menace II Society*); baina film biribilak ere barra-barra ditugu: *Memento*, *Ghost Dog*, *Before the Devil Knows You're Dead*...

Zinema beltzeko arauak gustatzen zaizkionak gozatuko du gehien. Araurik nagusia: batzuetan ia edozer dela zilegi, horrek hurrengo goizera bizirik ailegatzea ahalbidetzen badizu. Baina kontuz, gauza gero eta konplikatuagoa da... Polizia ustelak *rookie* gazteari diotsan bezala: "Hau xakea da, ez dama-jokoa". ■

iRUñAZARRA
TaBERNA • JaTeXea

Merkaderes kalea, 15 · 31001 IRUÑA (Nafarroa)
T 948 22 51 67 · info@irunazarra.es · www.irunazarra.org

ogiaren egia
Denda berritu dugu!
Zatoz eta bidaiatu
iraganeko okindegi
xarmant batera

Galparsoro
OKINDEGIA

Antzinako ogiaren
kabia bihurtu baitugu
denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

Liburuak

KRITIKA

Ura nonbait

Helduen literatura

Saioa Ruiz Gonzalez

BITAN EDO HIRUTAN irakurri dut Ádám Bodorren *Artzapezpikuaren bisita* eta esan beharra dut, oraindik ere, nahasmen sentsazioa ezin izan dudala baretu. Egarriz uzten duen eleberria da, edo hala sumatu dut nik, berriro hastapenera itzultzera gonbidatzen duena baina, edozein modutan, behin eta berriz irakurrita ere zapore mingotsak irauten du, testuaren laguntzaz ezabatu ezingo balitz bezala. Testua utzi eta haren oihartzunak barruan irauten duela konturatu naiz; asetzen ez nauen zer bat nabaritzen dut.

Berez eleberriaren oinarria sinplea da; Gabriel Ventuza Bogdanski Dolina izeneko herrira iritsi da aitaren gorpuzkiak eskuratzeko asmoz, baina heldu bezain laster arropa eta dirua lapurtu dizkiote. Ventuza atzerritarra kapilau militar lanetan aritu beharko da, Izolda esparruko gaixoak aitortzen, bere aitaren gorpua hobotik atera eta jaioterrira itzuli ahal izateko. Pertsonaien inguruko aurre aurkezpenik gabe narrazioak gertakari konkretu batetik aurrera eta atzera egiten du: hilabete batzuk aitzin Senkowitz ahizpek isolamendu zentrotik ihes egin zuten eta orain Ventuza atzerritarrak atxilotu egin ditu. Bitartean Bogdanski Dolina, Zilava izeneko artzapezpikuaren bisitarako prestatzen da.



Eleberriaren haria bi gertakari horien aurrekarietan egituratuz joango da, eta horien azalpenean gorpuzten da pertsonaia desberdinen gaineko istorioa. Egitura zatikatuak bizitza zatikatuen ispilu gisa funtzionatzen du; irakurlearen esku uzten da osotasun bat eraikitzeko falta diren hutsuneen bilaketa, nahiz eta errazegi suertatu ez. Unai Elorriaga eleberriaren itzul-

tzaileak azpimarratu duenez, zatikatze hori izan da gehien txunditu duena, haren hitzetan “zatikatu ez dagoela usteraino” iristen garelarik. Hala ere, ene ustez, horixe izan daiteke eleberriaren ezaugarriarik nahasgarriena, izan ere askotan haria jarraitzeko oztopoak ezartzen ditu, bidean zer edo zer galdu dugulakoaren sentsazioa eraginez eta horrexegatik, agian, hastapenera itzultzera behartzen du behin eta berriz.

Diktadura erregimenaren izugarrikeriak gaitzat harturik, Ádám Bodorrek kristau ortodoxoak kokatu ditu botere hierarkiaren gailurrean. Isolamendu esparruetan biltzen diren protagonistak ez dira errealitate zuzenetik berreskuratu izan diren betiko juduak ezta ijitoak ere, gizakiaren alderdirik suntsitzaileena muturreraino eramanez, edozein herrialdetako biztanle izan daitezkeen biriketako gaixoak eta “inguruko jendilajea” (13. orrialdean) baizik.

Boterearen gehiegikeriak salatzeke hamaika moduetatik Bodorrek tinko eta lehorrena aukeratu du. Hitz bakoitzari esanahi posible guztiak erauzi behar izate horretan ezkututzen da eleberriak eragiten duen egarrria asetzeko sekretua. Onartu beharra dago eleberri konplexua dela baina gezurra badirudi ere, lehortasunik handienean ur tantak sortzen dira. ■

Artzapezpikuaren bisita.
Ádám Bodor.
(Itzultzailea: Unai Elorriaga).
Elkar.
130 orrialde.
14,50 euro.



Diskoak

IKER BARANDIARAN



Hotzikara.
Hotzikara.
Autoekoizpena.
Iraupena: 32'04".
5 euro.

Muturreko egoerak neurtzen jakitea

JAKINA DA Euskal Herriko metal eszena emankorra dela: talde gogorragoak, heavyagoak, melodikoagoak, ilunagoak... askotarikoak aurki daitezke, baina behin baino gehiagotan 1990eko hamarkadako thrash-core taldeen hutsunea igarri dut. Usurbilgo gazte hauek, baina, jakin dute haien espiritua berreskuratzen –seguruenik izango du eraginik Mikel Kazalisekin grabatu izanak ere– eta horri, gainera, bestelako keinuak eta estiloak gehitu dizkiote.

Hala, aipatutako amorrazio estiloaz gain, rap metaleroa, rock dezente, metal pisutsua, heavya, flamenko tankak eta beste aurki daitezke tarteka ahots guturalak gidatzen duen bidaia honetan. Oreka bilatzen dute, eta horrek emaitza aberasten du. Euskaraz abesten diete hotzikara eragiten dieten gauza askori: espetxeei, politikariei, justiziari, kontrolari...

www.hotzikara.com

Antton Aranburu - Hotzikara

«Disko honekin borobiltasuna nahi genuen, geruza ezberdinak, gozotasuna»

Hotzikara aldaketa uneetan ematen da, on eta txarretan. Txar batzuk ezagutu ditut, baina zer aldaketa on nahiko zenukete?

Normalean esperientzia txarrekin lotzen dugu. Baina gozamenarekin ere lotu daiteke. Adibidez, kanta eder batek ere sor lezake. Eta gu gustura, kontzertura gerturatutako lau katuei gozameneko hotzikara eragitea lortzen badugu.

Anestesiaren eta batez ere Ibonen ahotsaren eragina antzematen da. Zarauzko taldeak askori zabaldu dizkigu ateak?

Bai, Anestesiaren dosi handiak sartutakoak gara. Gainera, ahots guturalak Euskal Herrira zabaltzen asko lagundu duen taldea da, jendearen belarria egina dago. Hala ere, oraindik “musika oso ona, baina ahotsa...” bezalako komentarioak entzuten ditugu!



Zeren bila jo zenuten Fideleneara?

Musika estilo hauetan Mikel Kazalisek besteko esperientzia gutxik izango dute Euskal Herrian. Ez genekien gure kanten nolako indarra eduki zezaketen diskoan, eta harrituta gelditu ginen. Aupa Mikel!

S.O.S kanta existentziala da. Aje egun txar baten idatzia da?

Ez dakigu biharamuna geneukan edo lo hartu ezineko gaua zen,

baina betiko zalantzak eta ezinegonak dira. Askokosta zitzaigun letrari norabide bat ematea, oso gai zabala baita. Baita musika egokia bilatzea ere, baina gustura geratu gara.

Sepulturaren posterrak paretara itsatsita daude oraindik Usurbilgo lokaletan? Badirudi 1990eko hamarkadako taldeak dituzuela gustukoen...

Sepultura bezalako taldeen eragina nabarmena

da, haiek bultzatu gintuztelako musika ildo honetara, baina egia da azken urteotan irrati eta telebistatik iristen zaigun musikak ez gaituela guztiz betetzen; eta betiko talde eta estiloetatik irten nahi izanez gero, asko bilatu behar duzula zure kabuz. Hala ere, ez gaude 1990eko hamarkadan estankatuta, badira talde potente ugari ondorengoak ere. Adibidez, Willis Drummond. ■

Ezpalak

JON TORNER

Beldurrezko Zinema Astea urriaren 29an hasiko da



URRIAREN 29TIK azaroaren 4ra bitartean egingo da Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren XXII. Astea. Antolatzaileek aurtengo kartela eta egitarauaren aurrerapen bat aurkeztu dituzte jada. Kartelean Manuela Velles aktore madrildarra ageri da, aizkora eskutian, Antzoki Zaharrean, “bere hasieratik Astearen arima eta epizentroa” izan den lekuan. Proiektatuko

dituzten filmen artean, *Juan de los muertos* kubatarra, *Hobo with a Shotgun* kanadarra, *Saint* herbeherearra eta *Tomie unlimited* japoniarra nabarmendu ditu, besteak beste, Donostia Kulturako zinema arduradun Josemi Beltranek. Informazio gehiago Donostia Kulturaren webgunean: www.donostiakultura.com/terror/2011.

‘WestKunst’ izenburupean, hainbat arte adierazpide uztartzen dituzten hamar artista gazteren obrak izango dira ikusgai urriaren 15era bitartean Bilboko Windsor Kulturgintza galerian. EHUKo Arte Ederretako ikasleak dira hamarrak: Tamara Garcia, Abian Gonzalez, Kemen Iruretagoiena, Maite Leyun, Jaime Mañas, Ester Pastor, Igor Rezola, Sandra Rilova, Marta Rubio eta Augusto Sanchez.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak (EOS)

antolatutako *Matinée* zikloaren 20. edizioak hamasei emanaldi jasoko ditu, hilaren 24tik datorren urteko ekainera bitartean. Iñigo Alberdi EOSeko zuzendari nagusiak egitarauak askotariko kontzertuak bilduko dituela nabarmendu zuen atzo Donostian egindako aurkezpenean. Ganbera taldeek, Euskadiko Orkestraren zein BOSeko musikari-taldeek, Andra Mari Abesbatzak edo Gonzalo Tejada eta Iñaki Salvador bezalako musikariek parte hartuko dute aurtengo edizioan.



Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologiako MASTERRA 2011/2012

Euskal Herriko Unibertsitatea / Gasteizko Letren Fakultatea



Ikerketa mاستerra doktoretza aukerarekin, 3 ikerlerro hautatuz 5etik:

- Hizkuntzalaritza aplikatua
- Euskal literatura
- Euskal gramatika
- Euskararen (aurre)historia
- Euskalkiak

Eskolak urritik abendu erdia arte eta otsailetik martxo erdia arte; 60 kredituak urte betean ala bitan egin daitezke; urte betean eginez, goiz eta arratsalde (11:00-14:00 eta 16:30-19:30) hiru (1. lauhilabetea) ala bi egunetan (2. lauhilabetea); bi urtean eginez, goizetan ala arratsaldeetan baizik ez, bi egunez ala egun batez.

Argibide akademikoak:

Iñaki Camino
☎ 945 013 644
inyaki.camino@ehu.es

eman ta zabal zazu



UPV EHU

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Erakunde publikoei emailuka

JOAN DEN ASTEAN jaso genuen buletina, bostehungarrena. Denbora ez doala alferrik esplikatzuz zikindu zitekeen orrialde hau, esanez, adibidez “bostehun Literatur Emailu; alajaina; marka da gero”; eta eskerak ere emango genizkieke Armiarma.com atariaz arduratzen diren lagunei horrelako zerbitzu txukunarengatik; eta artikulua nahikoa koipeztatua ez balego ordurako, errematea ere eman geniezaioke “ea beste bostehun ere etortzen diren txintxo-txintxo, banaka-banaka, astero-astero, gure bihotzetako e-postetara” bezalako kurtsikeriaren bat jarritz —ofizio gutxiko kazetariok askotan idazten baititugu tankerako bukaera borobil ustekoak artikulua nola amaitu ezin asmatuz gabiltzanean—; sindudarik gabe, elkarrizketak eman eta denekin ondo geratzea izaten da prezeptiboa hau bezalako efemeride-artikuluetan.



Ez daukazu ba gogorik, hara. Eta ez Armiarma.com egiten dutenek merezi ez dutelako, ez, zalantza daukazulako baizik, ea zu ote zaren, erabiltzaile bakarti anonimo hori, horrelako zerbitzua klik bitan eta doan edukitzeagatik eskerrak ematen hasi beharko litzatekeen lehenengoa. Are, zalantza daukazulako horrelako webguneak eskatzen duen bilaketa, sailkatze eta digitalizatze lan eskerga argitaletxe batek (Susak) hartu behar ote lukeen bizkar gainean eta ez erakunde autonomiko, foral, unibertsitario edo, sikiera, lokalen batek. Ez ote diren horrelako instituzioak, hain zuzen, Literatur Emailuak bostehungarrenera iritsi izanagatik zorionak, eskerrak eta bibak partitzen hasi beharko liratekeen aurrenekoak, beraiei egitea tokatzen zaiena —eta egin ez dutena— besteek egin dutelako. Zorionak beraz, baimenik gabe emana bada ere, haien partez. ■

kitzeagatik eskerrak ematen hasi beharko litzatekeen lehenengoa. Are, zalantza daukazulako horrelako webguneak eskatzen duen bilaketa, sailkatze eta digitalizatze lan eskerga argitaletxe batek (Susak) hartu behar ote lukeen bizkar gainean eta ez erakunde autonomiko, foral, unibertsitario edo, sikiera, lokalen batek. Ez ote diren horrelako instituzioak, hain zuzen, Literatur Emailuak bostehungarrenera iritsi izanagatik zorionak, eskerrak eta bibak partitzen hasi beharko liratekeen aurrenekoak, beraiei egitea tokatzen zaiena —eta egin ez dutena— besteek egin dutelako. Zorionak beraz, baimenik gabe emana bada ere, haien partez. ■

garrenera iritsi izanagatik zorionak, eskerrak eta bibak partitzen hasi beharko liratekeen aurrenekoak, beraiei egitea tokatzen zaiena —eta egin ez dutena— besteek egin dutelako. Zorionak beraz, baimenik gabe emana bada ere, haien partez. ■

Larrun 157
www.argia.com/larrun

EMILIO MAJUELO
Begirada sakon bat
historiari, Nafarroatik


«Euskal Herria
herri zati bat da,
horretan
sinesten duen
parte kontzientea»



Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Agintaritzak ezarritako arau edo arau multzo. Motxaile, buhame. 2. Nekazariaren lanabes, lau edo bost ohol horzdunetz osatua. Landetan kalte handiak eragiten dituen intsektu. Rhesus faktorea. 3. Korapilo. Buruko urko barik. 4. Zurrunga eginez. 5. Artazi. Bat-batean. 6. Gizon hitzak hitz elkarteetan hartzen duen forma. Bat-batean, berehala. 7. Katuaren oihua. Hurbil. Altfifrearen familiako zuhaixka. 8. Artilezko oihala arrunta. Hautsaren araknidoak.

Goitik behera:

1. Atsegin ez dena, jasangaitza, gogorra. 2.000 zenbaki erromatarrez. 2. Kulpa. Haragiaren mintza. 3. Georgiako. 4. Engainu, azpikeria. 5. Etekin, emaitza. 6. Hitzarmena. Merkurioaren sinboloa. 7. Letra grekoa. Kare. 8. **Argazkian**. 9. Trakets. 10. Izana adierazteko partikula, kargu edo lanbidearen eskuinean jartzen dena. ...-tak, erlojuak egiten duen hotsa. 11. Gasteizko kalea. 12. Seinale, marka. 13. Larruazaleko zulo txiki, izerdi guruinen isurbide. 14. Xumea, xehea. 15. Egokiak.

Mekanikaria eta medikua

Mekanikariak gorputz erdia autoaren kapotaren azpian sartuta dauka, motorraren matxura konpondu nahian. Giltza ingelesarekin lotu beharreko azken torlojuari estutua eman eta gero gorputza atera eta hiri-buruan dagoen bihotzeko zirujaurik ezagunena ikusi du garaje erdian, nork kasu egingo zain. Orduan, mekanikariak:

– Egunon, andrea! Galdera bat egiterik bai?
– Bai, gizona! Arazorik gabe.

Eta mekanikariak, eskuak garbitzen dituen bitartean:

– Hara! Ikusten duzu horko

motor hori, ezta?

– Bai. Ohartu naiz jo eta su ari zinela hortxe lanean.

– Bada, nik motor horren bihotza ireki dut, balbulak atera, konpondu, berriro bere lekuan jarri eta berria balitz bezala utzi dut, atzera kilometroak egiteko pronto. Garbi dago biok lan bertsua egiten dugula. Orduan, zergatik irabazten dut nik zuk baino askoz ere diru gutxiago?

Eta zirujauak, ahots leunez, ia-ia belarrira:

– Saia zaitez gauza bera egiten motorra martxan dagoela...

Sudokuak

Erraza

				7	2			
		7	4		8	1	9	5
1			5		3	4	7	2
	5		3	4	9	8	2	7
8	9	3	7	2	1		6	
2	8	9	6		5			1
5	1	4	9		7	2		
			2	1				

Zaila

	2			3				8
8					4			
9			1	2		3		
		2	3		7	1		
	3						6	
		9	2		6	7		
		6		4	1			5
			6					1
1				9			8	

Soluzioak

8	5	6	4	1	2	9	3	7
7	3	6	2	1	4	5	8	9
5	1	4	6	8	7	2	3	9
4	1	7	3	5	2	6	8	9
6	8	3	7	2	1	5	4	9
9	4	7	2	8	5	6	3	1
6	5	1	3	4	9	8	2	7
1	6	8	5	6	3	4	7	2
3	2	7	4	6	8	1	9	5

Erraza

Zaila

1	4	7	5	6	2	9	3	8
2	5	8	6	7	3	4	9	1
3	9	6	8	4	1	2	7	5
5	8	9	2	1	6	7	3	4
4	6	2	3	8	7	1	5	9
7	3	1	4	5	9	8	6	2
9	7	5	1	2	8	3	4	6
8	1	3	9	6	4	5	2	7
6	2	4	7	3	5	9	1	8

Ezker-eskuin: 1. Lege, jfito. 2. Ate, Oh, Rh. 3. Troin, Bui. 4. Zurrungak. 5. Guraiz, Ziplo. 6. Giza, Sasakoa. 7. Mian, Hur, Ipurua. 8. Marrega. Akarok. **Goitik behera:** 1. Latza, Mm. 2. Erru, Gila. 3. Georgiar. 4. Irizur. 5. Onura. 6. Iuna, Hg. 7. J. Gisa. 8. Baza. 9. Trakes. 10. Oh, Ttk. 11. Zapa. 12. Ikur. 13. Por. 14. Laua. 15. Onak.

guk ere
euskara
ikasi dugu!

MATRIKULA ZAITEZ
DONOSTIAKO
EUSKALTEGIETAN

2011 -2012 IKASTAROAK



Euskara ikasteko
diru laguntzak

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Apar iraunkorra

FRANTZIAKO hainbat ikerketa-zentrotako ikerlariak hilabeteak –gehienez 60°ko tenperatura duen uretan– irauten duen bitsa pres-tatu dute.

Aparra urezko mintz hauskorrezko mikrogloboz osaturik dago. Normalki, mintzaren iraupena oso motza izaten da; Jean Paul Douliez ikerlariak adierazi duenez, molekula tentsioaktibo bat sortu dute hori saihesteko. Errizino oliotik ateratako gantz-azido bat izan da guztiaren oinarria. Douliezek dioenez, oso kantitate txikia nahikoa da bitsa ugarik iraun dezan.

Antza denez, mikrogloboen hormetan mikrotutuzko sarea antolatzen da, eta horrek ematen dio egiturari irauteko behar duen sendotasuna. Tenperatura 60°tik gorakoa bada, mikrotutuen egitura aldatu eta sistemak sendotasun hori galtzen du.

Ikerlariak azpimarratu dutenez, osagai natural batetik lortzen den aparren sendotasuna oso ona da, eta fabrikatzaileentzat berebiziko garrantzia izan dezake horrek; ez baitugu ahaztu behar aparrek garbitzeko dituen ezaugarriak haren iraupenarekin bat datozela.



ANDALUCIAINVESTIGA.COM

Zelula amen bidez sortutako odolaren lehenengo transfusioa

Parisko Armand Trousseau ospitaleko hematologia departamentuak urte batzuk dar-matza ereindako globulu gorriak sortzen. Orain bost urte sortu zituzten lehen globuluak, eta berriki gaixo bati bere ama zelulen bidez sortu-tako globulu gorrien transfusioa egiterik izan da.

<http://ttiki.com/31022> (Frantsesez)

Izar baten jaiotza ezin azalduzkoa

Astrofisikariek jakin badakite izar bat existitu ahal izateko zein material mota izan behar duen bere baitan. Orain gutxi SDSS J102915+172927 deitu-riko izarra topatu dute, ia uni-bertsoa bezain zaharra dena, baina haren osagaiek harri eta zur utzi dituzte ikerlariak.

<http://ttiki.com/31023> (Frantsesez)

Alemanian heriotzak eragindako E. coli bakterioaren sekuentzia genetiko ezagutu da



ORAIN HILABETE BATZUK, Alemanian batik bat, baina baita Europako eta Ameriketako beste estatu batzue-tan ere, 60 pertsonaren heriotza eta 5.000 gaixo larri eragin zituen E. Coli bakterioak.

Bakterioaren indarrak ezustean harrapatu zituen zientzialariak, eta ziurta daiteke ia deus ere ezin izan zutela egin.

Society for General Microbiology erakundeak anto-latu berri duen udazkeneko batzarrean, nazioarteko zientzialari talde batek ikerketaren emaitzak aurkeztu

berri ditu. Jakin izan denez, bakterioaren genetika eta orain urte batzuk Afrikaren erdialdean beherako kasu ugari eragindako bakterioena oso antzekoak dira. Patogenizitatean oso ezagunak diren gene-sorta zabal bati esker izan zuen bakterioak botiken aurrean aurkeztutako erresistentzia.

Sagu gardena

Sagu-enbrioi baten garuneko neuronon garapena aztertze-ko, ikerlari talde batek zelulen pig-mentazioa kentzea lortu du, eta horrela, enbrioia garden bihurtu da. Oraingo zaldako animaliei baino ezin zaio apli-katu teknika hori, oso erasoko-rra baita.

<http://ttiki.com/31024> (Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Landare genero zaharrena

Gure planetan bizirik dagoen landare genero zaharrena omen da azeri-buztanarena, *Equisetum* generoa. Beste landareak sendatzeko bere ura nola erabili ez dut idatzi zaharra txoko honetantxe. Hantxe nioen milioika urtetako historia duen familia bateko azken partaide izan eta itxura ere prehistoriko samarra nola duen.

Orain Argentinatik dator berria, Patagonia hegoaldeko Santa Cruz lurraldeko Macizo del Deseadotik. Han, Galesko Cardiffeko Unibertsitateko Alan Channing geobiologoa buru duen taldeak marka berria jarri dio azeri-buztanari. Orain arte genero hau duela 65 milioi urte sortua zela uste bazen ere, han topatu berri dituzten fosil batzuei esker askoz zaharragoak direla jakin ahal izan da: 150 milioi urte inguru. Goi Jurasiko garaikoa, landaretzak gaurkoarekin alde ikaragarria zuen garaikoa. Egundo "benetako" loreak dituzten angiospermoak azaldu gabe, koniferoak, ginkgoak eta cycadaceoak nagusi ziren.

Gaur egun beste landareak sendotu eta sendatzeko erabiltzen bada ere, azeri-buztanak badu beste izen xeble bat. Garaitako erabilera bat gogora ekartzen duen izena: eztainu-belarra. Metal horrekin egindako ontziak garbitzeko aproposa delako jarria omen duena.



LUC VIATOUR-CC BY SA

Gonapeko bihotza

ASIA TXIKIKO Kurdistan omen da *Tulipa sp.* tuliparen genetikaren biltegia, bere jatorriaren bihotza, idi-bihotzaren bihotza. Nork jarri ote zion lore honi idi-bihotz izena? Noizkoa ote? Aspaldikoa izatearen zantzurik ez dut topatu. Izen honi berri samarra ote denaren usaina aditzen diot. Nondik nora sortua denaren argibidean inolako aztarnarik izanez gero, gustura hartuko nuke. Ireki gabea dagoenean, loreak duen itxura eta baita lore deigarri hori ematen duen lurpeko aietak edo erraboilak duen forma ote dira arrastoak? Bihotz baten eitearen antza izan dezakete... Tankera modutsuko forma duen tomate batek izen bera du, gaztelaraz *corazón de buey* esaten zaiona. Ea bada idi-bihotza izena nork asmatu zuen aurkitzen dugun. Bihotz forma bale, baina zergatik idiarena? Behiarena edo bigarena ez al da egokia? Eta ahardiarena? Izena jarri zuena bera ere idietakoa ote da bada? Mordoi-lo honen korapiloa askatzen laguntzen didanari etxeko bukoi beltzeko pare bat botila sagardo emango nioke gustura...

Garbi esateko moduan igarri ez, baina kontu honek gona usaina, gona beltz usaina, sotana usaina ba ote duen susmo dut... Lepoko zuri, ostiapeko patena, konfesatoki urdinduen lizuna, estola eta eratzun handien artean ibili izan da euskaldunon botanika asuntua: Jose María de Lakoizketa (1831-1889) narbartearra eta Guillermo Larrañaga Azpiazu (1905-1978) azkoitiarra dira begi-bistako adibideak. *Lardizabalaceae* landare familia osoari izena emateko ohorea izan zuen Miguel de Lardizabal y Uribe (Tlaxcala 1744-Bergara 1824) politikaria ere teologia ikasketak egina zen, harrapazank. Berta-xeagotik suertatu ez, egokitu zaidana, lehengo mendearen bukaera, alor gehienetan antzera, zientzian eta botanikan ere seminario kirats izugarria ibilia da. ARGIA ale oso bat txikitxo litzateke aurrekoena bezala soilik izenak aipatzeko ere. Duela urte gutxiko itxuragabeko keru hori leuntzen, mehetzen, saretzen ari da, urardotzen. Jainkoari eskerrak, Eolo zazpi haizeen jainkoari eskerrak!

Babeslea: Alkartasuna



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserriaren Kooperatiba

EGOITZAZ GAIN, ZERBITZU BERRIAK ETA GASOLINDEGIA

KOKAPEN BERRIA USURBILEN

Atallu Industrialdea, 6 - 26. lokala

T 943 361 114 / alkartasuna@usurbil.com



Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Gilda

URKIOLA MENDI JATETXEA



DONOSTIA, 1942. Blas Valles Erriberriko ardogi-leak lokal bat alokatu zuen Gipuzkoako hiriburuko Errege-erregina Katolikoen kalean, egun Valles taberna dagoen toki berean. Nafarroan ardoaren prezioa asko jaisten ari zen garaian hartan, eta ardo nafarra Donostian, Errioxako ardoa nagusi zen merkatuan, saltzeko ahalegina egitea erabaki zuen Vallesek, ardoa upeletan Erriberritik ekarrita.

Berehala Norteko geltokiko maletazainak otorduak ardo biltegian egiten hasi ziren, Vallesek etxetik ekarritako janaria sukaldean berotzen uzten baitzien, otordua basoerdi batekin bustiz gero. Auzokoak ere biltegiara joaten hasi ziren ardo porroiak edatera, eta, hala, 1946an nafar ardogileak taberna lizentzia lortu zuen udalean, upeleko ardoa saltzen jarraitu arren.

Urte berean, 1946an, Charles Vidor zuzendariaren *Gilda* filma estreinatu zen, Rita Hayworth eta Glenn Ford aktoreak protagonista zituen. *Put the*

blame on Mame kantaren eszena edo Fordek Hayworthi ematen dion masailekoa zinemaren klasiko bihurtuko ziren berehala. Eta, bitartean, Valles tabernan, beste klasiko bat sortzen ari zen. Ardoari laguntzeko, Vallesek piperminak, olibak edo antxoak atera ohi zizkien bezeroei. Haietako bati, Joakin Aranbururi –auzoan *Txepetxa* esaten zioten– pipermina, oliba eta antxoa txotx batez biltzea bururatu zitzaion. Asmakizunak arrakasta izan zuen lagunartean eta Txepetxak *Gilda* izenez bataiatzea erabaki zuen, Rita Hayworthen pertsonaia bezala, pintxoia berdea, gatzduna eta mina omen zelako.

1987ko Zinemaldian Donostia saria Glenn Ford aktoreari ematea erabaki zuten. Aktoreak bere ibilbide oparoko lan bat aukeratu behar zuen omenaldirako, eta Vidorren *Gilda* hautatu zuen. Ordurako, Donostiako nahiz Donostiaz kanpoko ehunka tabernetan bezeroek Txepetxaren *Gilda* aukeratzuten zuten.

Arrastoak

Koliseoaren zaharberritzea enpresa pribatu batek babestuko du

ERROMAKO KOLISEOA zaharberritzeko proiektua aurki abiatuko da. 20 eta 30 milioi euro bitartean eta hamabost urte beharko dira eraikinak behar dituen lanak burutzeko. Ekimen pribatua da, eta Tod's zapata enpresa izango da babesle ekonomiko nagusia.

Italiako Gobernuak ez du proiektuan parte hartzeko inolako asmorik, ondare historikori jaramonik ez egiteko azken urteotako politikari jarraiki. Berlusconi presidenteari ez zaizkio, nonbait, monumentu zaharrak interesatzen.



Sauveur Bacho

«Senatari izan gabe ere, gure aldeko sostengua ageriko da»

Donaixti-Ibarre, 1951. Baserrian sortua, baina enpresan aritu da langile. CFDT sindikatuko kidea. Arberatze-Zilhekoako (Baxenabarre) auzapeza. Europe Ecologie Les Verts-Régions et Peuples Solidaires-eko hautagai-burua da Frantziako Senaturako, Pirinio Atlantiarreko Departamenduan.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Gaizka Iroz

FRANTZIAKO SENATURAKO bozak izanen dira hil honen 25ean, bi itzulietan izan ere. 348 senatari hautatuko dira Errepublikan, hauetako hiru Pirinio Atlantiarreko Departamenduan. AB eta EA alderdiak Europe Ecologie Le Verts-Régions et Peuples Solidaires hautagaitzan aurkezten dira. Baxenabarreko Arberatze-Zilhekoa herriko auzapeza Sauveur Bacho da Departamenduko zerrendaburua. Boz hauetan senatariak tokiko hautetsiek hautatuak dira.

Bere buruaren erretratu bat eskaini digu solasaldiaren hastapenean: “Ene sentsibiltatea ezkerrekoa da. Lan arloan engaiatua naiz gaztetatik, partikularki jende esplotatuaren alde. Sozio-politikan, ezkerren, ekologismoaren eta abertzaletasunaren ideiez osatu dut ene ideologia. Aniztasun horretan ongi atzematen dut ene burua”.

Sindikalista eta herri txiki bateko auzapeza zara. Ezein alderdi politikori atxikia izan gabe, senatari izateko zerrendaburu zara Europe Ecologie Les Verts-Régions et Peuples Solidaires koalizioan. Nola sortu da engaiamendu hau?

Aspaldi honetan, PSren eta Europa-Ekologista-Berdeen artean eztabaidak gauzatu dira Parisen. Ekologisten mugimendu honek talde parlamentarioa osatu nahi luke Senatuan. 15 senatari behar dira, eta une honetan 5 besterik ez ditu. Kari horretara, PSrekin solasaldiak izan ditu, partikularki bozketa proportzionalak diren departamenduetan elkarrekin aurkezteko. Guk hemen ez dugu proportzionaltasun hori. Halaber, ekologisten eta Regions et Peuples Solidaires-en artean ere debateak izan dira Parisen. AB eta EA koalizio honen baitan



“Seignanx BABn sartzea gure estrategiaren aurka joateko da”

“Legeak Prefetari botere berriak eman dizkio Frantziako lurralde erreforman esku hartzeko. Erreforma horretan Lurralde Elkargoei buruzko proposamen batzuk interesgarriak dira (Zuberoakoak edo Nafarroa Beherekoak, adibidez) eta bertze batzuk Estatuaren interesekoak (Baiona-Angelu-Biarritzeko elkargoa, BAB, adibidez). Dena dela ere, elkargo berriei buruzko debatea gaizki eramana izan da. Ene ustez, hasteko eta behin, prefeta hautetsien arteko zereginetan sartu da, tokian tokiko proiektuak aztertu gabe, guk elkarrekin aritu nahi dugun edo ez galdetu gabe. Ezin dugu aitzinetik ezkondu eta gero asmatu nola bizi ezkondu. Elkargoak sortzeko, lehenik argitu behar dugu zer proiektu nahi dugun gure bizitzarentzat, tokian tokiko elkargoen aferak nola landuko diren, zer gobernamendua ezarri nahi dugun. Beraz, gure ustez, erreformaren eta Lurralde Elkargoen inguruko proposamenak sobera fite garatzen ari dira. Denbora gehiago behar da eztabaidatzeko, eta ondoren, benetako ikerketak egiteko.

Zuberoako eta Nafarroa Behereko elkargoen proposamenak (Elkargo bakarra Zuberoarendako eta biga Baxenabarrendako) interesgarriak izan daitezke geroari begira.



Alta, kostaldeko Elkargoak (BABekoa) Landak departamenduetako lurraldearekin nahastea ez da zuzena. Seignanx herria (Landak) BABn sartzea gure estrategia orokorraren aurka joateko egina da. Gu guztiz kontra gaude. Gure aburuz, ez da egokia Euskal Herriko muga historikoa gaindituz elkargoak sortzea. Izan ere, gure xedea Euskal Herriko Lurralde Elkargoak sortzea baita”.

daude, Biarnon berriz, Partit Occitan dago. Horiek horrela, AB eta EAko kideak proposatu didate koalizioan parte hartzeko zerrendaburu gisa. Alderdi horietako kidea izan gabe, beren ezaugarriak dituen norbait nahi zuten. Baserri munduko auzapez batek heina eman zezakeela pentsatu dute, bai sentsibilitate anitz horiek biltzeko bai kandidatura animatzeko. Eztabaidatu dugu, eta aniztasun horretan ontsa kausicu dut ene burua.

Zeri begira eman duzu urrats hau?

Euskal Herri osoari begira pentsatuz hasteko. Une honetan gauza baikorrak gertatzen ari dira politikan, bertze aro bat abiatu da. Euskal Herri osoa harturik bide berriak urratu daitezkeela ikusten dut. Ipar Euskal Herriari begira berriz, Europako azken bozetan ildo berri batzuk urratu ziren. AB, EA eta Europe Ecologie Les Vertes-en artean zabaltzen den bidea biziki inportantea da politikan lekua hartzeko. Beraz, boz hauetan, beste urrats bat eman dezakegu bidea egiten ikasteko: elkarrekin lan eginez eta elkarrengana gehiago hurbilduz. Ene gustuko, politikaren ildo berri honetan sartzean, gure gazteruari begira lan egin behar dugu bereziki.

Euskal Herria kontuan harturik, beste herriei elkartasunean eta ekologismoaren bidean. Bateratze hori egin dezakegu. Nihaurek erai-kin horretan ene harritxoak ezartzen ahal dudana ustetan ari naiz gogotsu.

AB eta EA bai, baina Batasuna ez da zuen hautagaitzan sartu. Nola baloratzen duzu hori?

Elgarretaratzea biziki gaitz da beti, aiseago da banantzea elkartzea baino. AB eta EA indar inportanteak dira abertzaletasunean. Batasuna nahi izan balu gure ekimenean izan, enetatzat ez zen problemarik izanen. Baina, estrategia mailan oraino denbora pixka bat behar da denen biltzeko. Batasuna, gero hurbilean nahi badu, gure ibilmolde honetara bilduko da. Alta, guk ezin dugu Batasuna noiz partituko den beha egon, gu abiatu gara eta kanpainan baikorki ari gara lanean.

Senatari izateko xantza ikusten duzu?

Euskal Herrian eskuina arrunt zati-

tuta aurkezten da aldi honetan. Eskuineko hiru zerrenda daude eta zentroko beste bi. Ezkerrekoak bi dira, PSk eta PCk bana aurkezturik. Lehen itzulian hautagai asko bazter geratuko dira, zaila izanen da lehen itzulian nehor hautatua izatea. Iragan bozetan hautaketa proportzionala izan zen, aldi honetan gure hautes-barrutian ez da hala. Bozorri bakoitzean hiru izen daude, eta alderdi ezberdineko hautagaiak hauta daitezke. Aurreko bozetan hautagai abertzaleak (Ande Darraidou) 190 boz ukan zituen. 50 boz gehiago behar zuen senatari izateko. Aldi honetan, ez dugu pentsatzen nehor bozen %50 erdietsiko duenik. Bigarren itzulian ezagutuko dira senatari berrien izenak.

Bigarren itzulira pasatuz gero, nola jokatu duzue?

Bigarren itzulian PSrekin batera airtzea erabaki dugu. Ontsalaz, ni ere izan naiteke hautagai. Bide hertsia da, menturaz senda bat da, baina xantza badugu.

Estatuan berriz, oro har?

Estatuan, zinezko desafia eskuinetik ezkerreko senatarien 22 eserleku kolorez aldatzea da. Senatu alda liteke eta presidentea ezkerrekoa

“AB, EA eta Europe Ecologie-Les Vertes-en artean zabaltzen den bidea biziki inportantea da”

izatea. PS eta Ekologisten-Berdeek arteko akordioak landu dira hori gauzatzeko. Lehia biziki estua izan da, partida ez da departamentuan jokatzeko Estatuaren baizik.

Sauveur Bacho senatari izateak ere ekar lezake zerbait, halere.

Guk senatari bat ukateak ez du hemengo politika uzkaileko. Alabaina, euskarari buruzko legearen eta instituzio berriaren eskakizunaren aitzinean Parisen presente izan gineteke taldeko beste senatariekin batera. Urrats interesgarria litzateke, jakinik ere Frantziako politika ez dela horregatik arras aldatuko. Dena dela ere, ni hautatua izan edo ez, herriz herri ari gara kanpainan eta ibilmolde horretan gure mezuak ongi hedatu ditugu. Gure ideiak ongi hartuak dira hautetsien aldetik. Bistan da, ontsa hartzea eta gure alde bozkatzeko bi gauza desberdinak dira. Alta, senatari izan gabe ere gure aldeko sostengua agerian geratuko da.

Zein dira zuen koalizioaren aldarrikapenak eta xedeak?

Punturik inportanteena Lurralde Elkargoa erdiestea da. Orain arte Euskal Herriko Departamentua aldarrikatu dugu eta legeak geldiarazi du gure eskaera. Orain berriaz, departamentuek beren boterea pixka bat galduko dute. 2013an, Lurralde Elkargoak sortzen badira oraingo instituzioek botere parte bat galduko dute. Hartaz, Ipar Euskal Herrian beste egitura bat sortzea proposatzen dugu. Batera plataformak Euskal Herriko Lurralde Elkargoa proposatzen du eta Senaturako gure hautagaitza honek bat egiten du



"Batera plataformak Euskal Herriko Lurralde Elkargoa proposatzen du. Xede horretan, Senaturako gure taldea lege berri bat sortzen entseiatuko da".

asmo horrekin. Xede horretan, Senaturak legeak ezartzen dituenek, talde parlamentario berria lege hori sortzen entseiatuko litzateke.

Frantziako Gobernuak, Estatuaren erreformaren kariatara, Herrien Elkargoak sortu nahi ditu 2013ko bozen ondoren. Nola baloratzen duzue orain arteko desmarxak?

Lurraldeko hautetsia sortu nahi du. Kontseilari gisako horrek Erregio-ko eta Departamentuko kontseiluetako botereak izanen lituzke. Gu kontra gara, ber hautetsiek eta kontseilariak eskumenak izanen lituzkeelako Departamentuan nahiz Erregioan zein Elkargo berrian. Guretzat hori ez da gauza ona. Frantziako ezkerrek erran du ez dituela lurralde kontseilariak begi onez ikusten era horretan hautatuak badira, kontseilariak proportzionalki hautatuak izan beharko liratekeela. Baina, halaber, PSko ildoan artean debadua edo lehia badago, ez dakite zuzen nola jokatu. Gure kandidaturak kontseilariak proportzionalki ezarriak izan daitezkeen nahi du. Zer nahi gisaz, ez dugu uste Gobernuaren erreformak Estatuaren deszentralizazioa ekartzen duenik, alderantziz, zentralizazio handiagoa burutzen ari da.

Hauteskunde-programako zure hautagaitzaren beste eskakizunik azpimarratuko al zenuke?

Indar nuklearren irtenbide progre-

siboa eskatzen dugu, energia iturri horiek 20-30 urtetan ken daitezkeen. Energia berriztatzaileak lantzea proposatzen dugu. Laborantzaren zat ingurumena funtsezkoa da, eta ingurumen politiketan ahalegin berezia egitea nahi dugu. Laborariak ongi iharduki behar dute kontsumitzaileek mozkin onak ukan ditzaten. Urte frankotan gauza anitz eta ontsa egin dira, eta hala behar da segitu. Ekoizleen eta kontsumitzaileen munduak hurrandu behar dira, Senaturako gure hautagaitzak hobekuntza hori erdietsi nahi du. Ni aurkeztu banaiz, konparazioa, baserri eta hiria hurrantzekoa da. Euskal Herriak badu horretan bide egiteko, asko du oraino irabazteko.

LGVren (Abiadura Handiko Trenbidea) aurka zarete. Gobernuak proiektua gelditu du. Nola hartu duzu berria?

Gu gaur egun martxan dauden trenbideak berritzearen aldekoak gara. Gelditzeko erabaki hori usaia joko politikoa da. Gobernuak proiektuaren aurkako elkarteak indarrak ikusi ditu, baita hautetsi gehienek jarrera ere, orduan, ez daki proiektua nola aitzinarazi eta gelditu du. Baina, hori momentuko jokamoldea da. Hauteskundeak heldu dira: datorren urteko hasieran presidentzialak izanen dira, eta ondoren orokorrak. Gobernuak denboraldi bat hartu du, baina, funtsean, Estatuak ez du LGV berriaren proiektua geldituko. ■

SOLOZABAL

*Eskura ezazu teorikoa 5 egunetan
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

Séchu Sende
soziolinguista galiziarra

«Landa eremua indioen erreserba modukoa da, oraingoz»

Séchu Sende (Padrón, Coruña, Galizia, 1972) irakaslea, idazlea eta soziolinguista da. Umoreak galegoarekiko hainbat aurreiritzi bertan behera uzteko balio duela sinesten du. Besteak beste *Guía Sexual da Sociolingüística* (euskarara itzulia dago) idatzi du.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

GASTEIZKO UDALAK antolatutako Eremu urriko hizkuntzak edo hizkuntza gutxituak hitz egiten dituzten Europako gazteen topaketetan hartu zuen parte duela pare bat hilabete. Entzuleekin hipnosi saioa egin zuen Padróngo soziolinguistak.

Soziolinguistika eta umorea uztartze-ko joera duzu.

Umoreak gizartearen kontraesanak oso ikusgarri egiteko gaitasuna dauka. Nolabaiteko distantzia hartzen du, eta besteen larruazalean sartzeko aukera ematen digu. Hizkuntz gatazka dagoenean, edo baita tragedia ere –hizkuntza galtzea adibidez–, umoreak gizarteko eragileen arteko komunikazioa lasaia goa izan dadin laguntzen du. Bereari eutsi nahian dabilen jendea edo gatazkara hurbiltzeko gogorik ez daukana, umorearen bidez hurbilarazi daiteke.

Hipnosia moduko teknikak erabiltzen dituzu.

Galiziako gazteekin soziolinguistika tailerrak egiten ditugu, beti ere, modu ludikoan, ikasiz gozatuz. Hizkuntzari buruzko aurreiritziak lantzen ditugu, baina alde kognitiboa edo esplikati-boa azaldu beharrean tailerretan bizi egiten ditugu egoera horiek. Azken finean, hizkuntzarekiko aurreiritzientzatik batzuek ez dute inoiz galegoa hitz egiteko saiakera egiten, eta beste



Entzuleak hipnotizatu nahian dabil Séchu Sende. Irakasleak umorea darabil hizkuntz kontraesanei aurre egiteko.

batzuek berriz, aurkako jarrera izaten dute. Jarrera horiek barregarri uzten ditugu umorearen bidez, baina traumarik gabe. Ikuskizun ukitua ematen diegu saioei, *El Club de la comedia* [bakarrizketa umoretsuen telebista saioa] tankerakoak-eta egiten ditugu.

Galizian, gaztelania hiztunek gazte garaian galegora jauzi egiten dutela esan duzu. Arraroa egin zait.

Neofalantes deitzen diegu gazte horiei. Dena dela, zuk esan duzun moduan baino konplexuagoa da kontua.

39 urte dauzkatz eta nire belaunaldiko asko hasi ginen gaztelaniaz egiten. Gure gurasoak oso baldintzatu zeuden, politika frankistagatik eta aurreko historia guztiagatik, eta hirietan belaunaldien arteko mozketak linguistiko handia gertatu zen. Gurasoek galegoa jakin arren eta lagunekin galegoz egin arren, haurroi gaztelaniaz hitz egiten ziguten. Ondorioz, batzuk gaztelania hiztun bihurtu ginen. Era berean, garai hartan, eskolan galegoa ikasi genuen lehen belaunaldia izan ginen. 1982-1983 inguruan ikasgai gisa hasi ziren

galegoa irakasten. Lehen belaunaldi alfabetatua ginen, telebista ere galegoz hasi zen emititzen... Hala ere, ez zen nahikoa, hizkuntza prestigio-duna gaztelania zen.

Neofalanteak aipatu dituzu.

Duela 10-15 urteko datuak dira, baina balio dute aldaketa adierazteko. Gaztelania hitzun bilakatu ginen horietatik, 100etik 16 galego hitzun egin gara gero.

Hirietan, belaunaldi mozketak jarraitzen du eta gazteek ez dute galegoz hitz egiten. Ferrolen adibidez, gazteen %4ak ere ez du hitz egiten galizieraz. Alabaina, azken urteetan, *neofalantearen* irudia ari da zabaltzen, nahiz eta gutxiengo baten kontua den. Gazteak aldaketa beharra sentitzen du gaztaroan, nortasun propioa izan nahi du, eta batzuek nortasun hori hizkuntzan aurkitu dute. Galegoa sustatzeko kanpainetan *neofalantearen* figura erabili ohi da. Esate baterako, Galizia inoiz zapaldu ez duten kroaziarra, ingelesa eta kurdua agertzen dira bideo batean galegoz hitz egiten. Kontraesana agerian uzten da: “Nola gerta liteke hark galegoz egitea eta nik, hemengoa izanda, ez jakitea?”.

Hirietako gazteez ari zara. Egoera ez da bera izango herri txikietan, ezta?

Hizkuntzaren ordezkapen prozesuak segitzen du eta *vilatara* iristen ari da, hau da, 5.000-10.000 biztanle baino gutxiagoko herrietara. Hala ere, landa eremuan galegoa gehien-goak erabiltzen segitzen du, nahiz eta modu diglosikoan izan.

Vila de Cruces herrian [Pontevedra] egiten dut lan, 6.000 biztanle inguruko herrian. Irakasle naizen eskolako gazte guztiek, 300 bat, egiten dute galegoz, hiru-lauk kenduta. Eguneroko hizkuntza galegoa da. Hala ere, hirira doazenean batzuek jarrera aldatzen dute, gaztelaniaz hasten dira, jarrera diglosikoa dau-



Senderen *Made in Galiza* kontakizun liburua saritua izan da. Galegoaren egoerarekin zerikusia dute kontakera denek.

kate. Era berean, euren kultura aintzat hartzen dute, musika galegoz egiten dute, hormetan marraztutako bihotzetan galegoz idazten dute, *smsak* ere hala bidaltzen dituzte.

Vila de Crucesen, umea eskolan sartzen duzunean, ia seguru egon galegoz hitz egiten segiko duela. Landa eremua indioen erreserba modukoa da, oraingoan.

Umoreaz aritu behar genuela eta ez dugu barre asko egin. Pozte aldera, kontak ezazu nola erabaki zenuen gaztelania hitzun izateari utzi eta galego hitzun bihurtzea.

“Hizkuntz gatazka dagoenean, edo baita tragedia ere –hizkuntza galtzea adibidez–, umoreak gizarteko eragileen arteko komunikazioa lasaiagoa izan dadin laguntzen du”

Oso zaila da azaltzea zergatik hizkuntzaz aldatzen dugun. Modu heterodoxoan emandako esplikazioa hauxe litzateke: galegoko irakasleak Castelaoren [politikari eta idazle galiziarra] idatziak erabili zituen klasean eta nik diot hark konbentzitu ninduela galegoz aritzeko. Barre egiteko prestatutako ikuskizun batean Castelaok galdeztzen dit: “Eta zuk zergatik ez duzu galegoz hitz egiten?”, eta nik erantzuten diot: “Castelao, hitza ematen dizut bihar bertan hasiko naizela!”.

Zergatik hasi nintzen galegoz hitz egiten? Zaila da azaltzea... Arrazoiak bat baino gehiago dira. Ea. Nire amaren irudia hor dago. Galegoz hitz egiten zuen eta ez zuen erabiltzen hainbat egoeratan, adibidez trajedunen aurrean, bankuan edo medikuarenean. Lotsa emango balio bezala. Zorionez, niri arraroa egiten zitzaidan. Nik erabaki nuen ez nuela lotsarik sentitu nahi hizkuntzagatik, nire hizkuntza zen.

Poema bat idatzi nuen behin eta saria eman zidaten. Galegoz idazten segi nuen eta lagunekin gaztelaniaz hitz egiten. Kontraesana iruditu zitzaidan.

Telebistako marrazki bizidunak dauzkatz gogoan. Haiek ikusita pentsatzen nuen “marrazki bizidun japoniar horrek nik baino hobeto hitz egiten al du galegoz?”.

Badira testuinguruak non galegoz natural-natural egiten den eta giro horietan deseroso sentitzen da gaztelania hitzuna. Galegoz hitz egiteko gaitasunik ez izatea ia-ia ezintasun moduan ulertzeraino. Nik banuen giro horietan integratzeko gogo.

Sentsibilitate sozialak eragin zidan; adin hartan ez nuen kezka politiko berezirik, ez nuen inon militatzen. Galegoa aldaketa sozialarekin lotu nuela uste dut. Aldaketa horren parte zen hizkuntza.

Aizu, azkenean ez dugu hainbeste barre egin. ■

Babeslea: Usurbilgo Udala



Enplegatzaile eta zaintzaileentzat euskara saioak

BANAIZ BAGARA ELKARTEAK (URNIETA) euskara ikastaro berritzaileak antolatu ditu. Familia euskaldunetan adinekoak zaintzen ari diren langileentzat, eta baita etxekoentzat beraienez ere, ikastaroak antolatu ditu. Azken urteotan atzeritik etorritakoak ari dira gero eta gehiago adinekoak zaintzen eta jatorrizko hizkuntza euskara duten aiton-amonak asko gaztelaniaz komunikatzen dira gaur egun haiekin. Errealitate berri horri heldu nahiz, langileentzat euskara ikastaroa izango da urritik urtarilerara bitartean. Etxeko langileek lanarekin lotutako esamoldeak,

komunikaziorako egiturak eta hitzak ikasiko dituzte. Hizkuntza berrira hurbiltzeko teknikak ere irakatsiko dizkiete. Era berean, adinekoaren etxeko kideek ikastaroa egin ahal izango dute, euskara menperatzen ez duten langileei ikasketa prozesuan nola lagundu ikasteko. Lehenengo aldia da euskara irakasteko proiektu berean langileak eta enplegatzaileak lotzen direla. Banaiz Bagara Elkartearen nahia proiektua nekazaritzara eta ostalaritzara zabaltzea da.

Ikastaroa Donostian Caritasek daukan Ategorrietako Laguntza Etxean eskainiko da. Egitasmoa ondokoek elkarlanean prestatu dute: Banaiz Bagara, Emun Koop., Caritas, Esperanza Latina, eta Donostia, Buruntzaldea eta Villabonako Udalak.

Bertso eskola euskaldun berrientzat



Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko ikasleak bertsoan.

EZ DA LEHEN ALDIA Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialak bertso eskola antolatzen dituela. Arrakasta izan dute eskola berezi horiek eta aurtengo ere ez dute hutsik egingo. Euskara ikasten hasi nahi dutenentzat edo ikasten ari direnentzat dira bertso eskola horiek. Bertsoak ulertu eta nola egiten diren irakatsiko die iazko irakasle berak, Ainhoa Aranburuk, alegia. Asteaz bi orduz arituko dira ikasturtean zehar.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Politika fiskala, gainditzeke dagoen irakasgaia

Opor garai ofizialaren ondoren, krisi ekonomiko finantzarioak gure ondoan segitzen du, bere ondorio pertsonal eta sozial dramatikoekin. Politikaren ordua da irtenbideak aurkitzeko, Merkatuen aginduetatik askatzeko eta ekintza bateratua bilatzeko; horrela, eszenatoki berriak imajinatu eta sortu ahaliko dira; ekonomia hazteko, enplegua sortzeko eta aberastasuna justuago banatzeko ere. Horretarako, noski, badaude erremintak. Horietako bat da politika fiskala, gainditzeke dagoen irakasgaia. Hain zuzen, foru erakundeen artean politika fiskalaz eztabaidatuko dute hilabete honetan.

Panorama horren aurrean, honako errealitate instituzionalarekin aurkitzen gara, guztiz erabakigarria beste mota bateko politika fiskala aurrera eramateko: EAEko gobernua PSOE-PPren eskuetan dago, ez dauka eskumen fiskalik, foru erakundeek baitute gai horretan eskuduntza bakarra. Baina diputazioetan fiskalitateaz dauden planteamenduak oso ezberdinak dira. EAJ Bizkaian eta PP Araban ez dira zergak igotzearen aldekoak, Bilduk aldez, Gipuzkoan jadanik mahai gainean jarri du zergak igotzea eta aurreko legegintzaldian ezabatutako hainbat neurri berrezartzeko asmoa agertu du. Patronalak presio fiskal txikiagoa eskatzen du, ez du ondarearen gaineko zergaz hitzik ere egin nahi, "iraganezko kontua" delako bere ustez, eta ez du sozietateen gaineko zerga igo nahi. Sindikatuek benetako erreforma fiskala nahi dute, gehien dutenek gehiago ordain dezaten eta iruzur fiskalari behingoaz aurre egin diezaioten.

Gauzak horrela, eta emergentzia nazionala gainez dela, jarrera zintzoa behar da, errealista eta zentzuzkoa. Aberatsak zergapetzen dituen politika fiskala behar da, eta iruzurra ezabatzeko aukera eman behar du politika horrek. Hiru aldundien artean adostasuna lortzea posible ez balitz, Bilduk Gipuzkoan egin dituen planteamenduak aurrera eraman beharko lirakeke, sikiera.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Eduardo J. Ruiz Vieytez-ek gipuzkoa.euskara.net-en esanak: "Hego Afrikan 35 hizkuntza baino gehiago daude eta horietako batzuen hiztun-kopurua handia da benetan. Hala, zuluak ia 10 milioi pertsonen hitz egiten dute, eta xhosa eta sotho 7na milioi pertsonen baino gehiagok. Guztiak dira bantu familiako hizkuntzak. Oraingo Konstituzioak, 1996an ezarritakoak, hamaika hizkuntza aintzatesten ditu ofizialtzat. Ingelesarekin eta afrikaansekin batera, ofizialak dira ndebele, sotho-sepedi, sesotho, swazi, tsonga, tswana, venda, xhosa eta zulu. Konstituzioaren 6. artikulua berak aitortzen du afrikar hizkuntzek lehenaldian jasandako marjina zioa, eta Estatuak haien estatutua eta garapena hobetzeko neurri zehatzak hartu behar dituela xedatzen du".

Eskaintza abertzale bateratua lau urte barru

ETarik gabeko eszenatoki politikoaren birmoldatzea jasaten ari dira hauteskunde hauek ere eta ezkerreko mugimendu soberanistak urrats bat gehiago eman du Aralar ere bere baitara biltzearekin. Egoera normaletan ohikoena da abertzaletasunean ere zentro-ezker eta zentro eskuineko indarrak biltzea, eta euskal esparru politikoa ere horretarantz doa. Ezkerreko esparru soberanista egituratzen ari da oraindik, baina maiatzaren 22ko emaitzek hegan jarri dute aukera. Ez da zalantzarik batasun kontu horiek ilusio maila handia sortzen dutela abertzaletasunean, Bilduren emaitzak lekuko; eta baita zailtasun batzuk ere –txikiagoak hauek– Nafarroako abertzaletasunaren desadostasunek erakusten duten moduan.

Ura azkar doa euskal politikaren ubidean, baina hala izaten da aldaketa politiko eta sozial handien garaietan, edo asmatu eta egokitzera zara edo korranteak ahanzturara eramaten zaitu. Testuinguru horretan atera du Bilduk indar abertzale guztiei azaroaren 20rako elkarrekin aurkezteko egindako proposamena. Aralarrek baiezkua eman dio eta EAJk ezezkoa. Jeltza-leek, gainera, proposamena ez dela serioa bizkarreratu diote Bilduri, eta honek EAJren ezezkoa azalartzea bakarrik bilatzen duela. Eta akaso hala da, jakinik Urkulluren EAJk orain ez duela halakorik onartuko, aldarrikapen abertzale zaharra mahai azpitik atera eta jeltza-leak ezetz ematera behartu.

EKIMENA zintzoa edo amarrua izan den albo batera utzita, abertzaletasunari komeniko litzaioke halakorik? Ona litzateke? Gaitza da erantzun bakarra izatea eta, seguruenik, unean uneko abagunearen arabera jokatzeko litzateke

logikoena. Gizarte eredu desberdinak dituzte EAJk eta ezker soberanistak, eta alde horretatik ez luke zentzu handirik hautagaitza bateratuak. Krisi ekonomikoaren aurrean, adibidez, EAJk PSOEren erreformak aurrera ateratzea ahalbideratu duenean, ezkerreko indar abertzaleek hiru greba orokor sostengatu dituzte erreforma horien aurka.

Baina hori bezain logikoa da salbuespenak ere baliatzea eta herri izaerari dagozkion aldarrikapenak era bateratuan akuilatzea

Baina, teorian bederen, herri proiektu bat ere partekatzen dute, Euskal Herriarena, eta beronen egituraketa politiko-instituzionala eta bere burujabetza aldarrikatzen dute. Eta alde horretatik bai izan dezake zentzua noizbait elkarrekin joatearenak: ekimena ondo mugatu eta zehaztuz gero, hautesontzietakoa herri gisa eman daitekeen erantzun indartsu eta deigarrienetakoa da. Zalantzarik gabe, eraginkorra litzateke abertzaletasunaren indarra erakusteko, eta baita herri gisa ditugun ezaugarri garrantzitsuenen defentsan –euskara eta euskal kultura– era nabarmenean sakontzeko.

Hau al da halakorik egiteko unetik aproposena? Baietz pentsa liteke, bakearen eta normalizazioaren txanpa hau baliatu behar dela halako proposamen bati indarra emateko. Bilduren emaitza onek argi adierazten dutela herritarren eta, bereziki, abertzaleen ilusio une hau baliatu behar dela. Gainera, horrek bereziki lagunduko lukeela bake prozesua.

Baina ezetz ere pentsa liteke, jeltza-leek egin duten moduan, eta horretarako ere arrazoi ugari egon

daitezkeela: azkar dela horrelakorik egiteko, edo bloke politika horiek baztertu egin behar direla, edo aurrera begira horrek abertzaletasunaren ikuspegi independentistena elikatuko duela eta EAJrentzat arriskutsua izan daitekeela, edo gizarte ikuspegia, edo...

PROPOSAMENA ez da gauzatu eta listo, baina akaso ez litzateke txarra unea baliatzea bi gai behintzat sakon hausnartzeko: bat, indar abertzaleek zein eratako elkarlana egingo duten Madrilén bake prozesu bat ondo egituratzeko eta nola jokatu duten elkarrekin nazio aldarrikapenen garapenean; eta bi, ea epe ertainera begira abertzaleen hautagaitza bateratu bat aurkez daitekeen, esate batera lau urte barru Espainiako hauteskunde orokorretan.

Uste dut datozen urteetan normalizazio politikoan jarri behar dela indarra, herritarrok bakeaz gozatu ahal dezagun, eta euskal gizartearen diren proiektu politiko desberdinak bake egoeran lehia daitezen. Ezin da hori egin eta, demagun, erabaki eskubidea ardatz hartuta, Estatuekin konfrontazio dinamika bat modu bateratuan eraman. Baina behin bake prozesuarena bideratuta, zergatik ez? Logikoa eta zentzuzkoa da abertzaleek ere normalean ezker-eskuin paradigmaren arabera hauteskunde eskaintza egitea. Baina hori bezain logikoa da salbuespenak ere baliatzea eta herri izaerari dagozkion aldarrikapenak era bateratuan akuilatzea. Nola, noiz, norekin... hausnarketa eta elkarriketa serioak besterik ez dira behar. Duela lau urte hasi zen irudikatzen posible zela ezkerreko esparru soberanista batzea eta emaitzak begien aurrean dira dagoeneko. Lau urte barru, posible ote eskaintza abertzale bateratua?

PELLO ZUBIRIA

Gaur ere mirabeak gauak laburrak eta egunak luzeak

Gaztetxotan aristokrata baten etxean neskame aritutako edozein amamak gaur zaintzaile hegoamerikarra dauka etxean. Sehiak, neskameak, mirabeak, morroiak... Munduko ofiziorik zaharrenetako batek indarrean dirau gizarte hiritartuetan. Beti bezala, langile ikusezinok aldendurik diraute gainerako langileen eskubideetatik.

ETXEKO LAGUNTZAILEEN MIRARIAK titulupean —horrela euskaratu deza-kegu libreki frantsesezko *Mirage des services à la personne*— dossier aberatsa eskaini du *Le Monde Diplomatique* hilabetekariak. Aitzakiatzat hartu dute krisi garaiotan Parisko gobernuak eta ezker frantsesaren zati handi batek etxez etxeko laguntzaile lanetan ikusten dutela enplegu posible mordoa. Alegia, senar-emazteak eguna etxetik kanpo pasatzen dutenei zerbitzatzen edo zaharrak bezala gaixoak zaintzen.

Munduan milioika dira familien zerbitzuan ari diren beharginak. Dossiera ez da sartu enpresa eta instituzioen garbiketan ari diren beste hainbeste milioika jendeen bizimodu-
duan, joan den maiatzeko NET HURBIL batean —“Garbiketa lanetan ari diren emakume ikusezin horiek”— aipatu ziren haienetan, nahiz eta batzuen eta besteen arteko mugak sarritan lausoak izan, batik bat gero eta gehiago direlako zerbitzu horiek guztiak eskaintzen dituzten enpresak.

“Erratza madarikazio” artikulua nagusia François Horn eta François-Xavier Devetter ekonomialariek idatzit dute; bigarren honek Sandrine Rousseauarekin plazaratu berria du “*Du balai. Essai sur le ménage à domicile et le retour de la domesticité*” (Erratza. Saiakera etxeko zerbitzu lanaz eta neskametzaren itzule-

raz). Frantzia zerbitzari lanak ehun urtean egin duen bilakabidea deskribatu dute, gurean gertatu diren aldaketak ere argitzeko moduan.

Frantzia bezala beste askotan 1920ko hamarkadan etxetik kanpo enplegua zuten hiru emakumetik bat mirabe ari omen zen; milioi bat Frantzia, kopuru handia 20 milioiko biztanleria aktiboaren barruan. Lehen mundu gerran urritu ziren, neskak fabriketara eraman zituztenean lanera. Gero, 1929arekin berriro ugaritu, gero eta urrunagotik etorritako baserritarrak gehienak. 1945 ostean, Portugal eta Espainiatik iritsi ziren milaka neskame.

1980tik aurrera berriro gutxitu ziren, baina azken hamarkadan langabezia handitu eta betirakotzearekin osteratu ugaritu dira etxeko zerbitzuan aritzeko eskariak eta eskaintzak. Horri bi eratan erantzun diete estatuek. Batzuek, Frantzia kasu, edo Europako iparrekoak, saiatzan dira ekonomia arautuan sartzen, neskamea kontratatzen dutenei zergak jaitziz, eta beste. Aldiz, mediterranearretan, Italian, Espainian eta Grezian, agintariek ezikusia egiten diote enplegu beltzen ugaritzeari.

Batera edo bestera, arau nagusia da etxeko zerbitzu lanak ahalik eta gehien merkatzea. Frantzia, zergak gutxituz. Grezian albaniarrek eta ukrainarrak ekarriz, Italian ukraina-

Irudia irailaren 4an Londresen aterea dago eta *Stronger Unions* blogetik hartua. Igan-dea izanik neskameek elkartzea posible duten egun bakarra, Justice4Domestic-Workers sindikatuak bildu zituen Britainia Handiko parlamentuaren aurrean, etorkinon lan baldintzak gogortzen dituen lege berriaren kontra aldarri egiteko. “Langileak gara. Ez itzuli esklabotasunera” dio pankartak. Alabaina, munduaren beste muturrean, Manilako Abest akademian, emakume gazteak esklabutzarako entrenatzen dituzte, *Le Monde Diplomatique* argitaratu duen hango eskuliburuan ageri denez: “Ez negarrik egin; zure nagusiek ez dute hori maite, negarrak zoritxarra dakarrelako. Ez eseri aulki eroso batean nagusiaren aurrean. Izan apala; ez da beti erraza gure okerre-
z jabetzea, sarritan uste dugulako arrazoi dugula. Nagusia kexu bada, zerbaitengatik izango da. Egin zure lana inork eskatu aurretik”.

rrak eta errumaniarrak, Espainian hegoamerikarrak. Ez da kasualitatea herrialde horietan immigrazioa hainbeste feminizatu izana.

Grezian, Italian eta Espainian, kanpotik ekarritako emakumeek egiten dituzte estatu ahulegiak zaharrei eta ezinduei eskaintzen ez dizkieten zerbitzuak. Europa aberatsagoan, berriz, etxeetako zerbitzu lanak ere gero eta gehiago enpresa berezitateak kontrolatzen dituzte, garbiketa enpresetako obreroekin parekatuz.

Sindikatuak? Zer den ez dakigu

Etxeko neskamea hartzean familia bat berdintasunik ezaren logikan oinarritzen dela erakutsi dute Devetter eta Hornek: “Analisi ekonomikorik klasikoena erakusten du ‘espezializazioaren’ logika hau: nire denbora libreka balio badu kualifikaziorik gabeko emakumeenak baino gehiago, zergatik uko egin bere zerbitzuei?”.

Etxeko lanak ematen zaizkie talde azpiratuei, emakumeei edo/eta etorkinei. Historikoki itsusitzat jo diren beharrak burutu behar dituzte, zikinari lotuak, edo zainketa aspergarri-pisuak. Ondo egiten ez badira behintzat, ikusten ez diren lan “alferrikako” horiek.

Bestalde, horiek nork eginga ez da falta. Maila apalagoan daudenak ez daukatelako ikasketarik, esperientzia-



eta inguruko inork ahal bada ohartu gabe bizirauten.

Pierre Souchon kazetariak “Etxeko zerbitzariak sindikatuetara erakartzeari, txindurri lana” idatzi du. CGT eta CFDTn horretan ari diren emakume sindikalistek –gehienetan, industriari atxikita, fabrikaren itxieragatik zerbitzuotara iritsi direnak – kontatu diote zein nekeza den, kotizazioa proposatzetik hasita: nola eskatu hileko jornalaren %1 jartzea hain estu bizi direnei?

Gaiari beste mutur batetik heldu dio Mona Chollet idazleak: “*Scrupules féministes*”. Estatistika honetatik abiatu da: emakumeak batzuetan beste egunean gizonak baino bi ordu eta erdi gehiago ematen dituzte etxeko lanetan. Eta hona bitxikeria: biak lanean ari diren bikoteetan, emakumeak lanorduetan mugatzen baldin baditu edo amatasun atsedenaldi luzea hartzen badu, etxeko lanen bere zatia handiagotzen du.

Emakumea ere etxetik kanpo jor-nada osoz ari denean, ondo bizi diren bikoteek lanok azpikontratatzeko joera dute. Sarkozy dioenez: “*Travailler plus pour gagner plus*”. Baina honek diferentziak handitzea dakar, batzuek beren kualifikazioari zuku handiagoa ateratu ahal izateko beste batzuk kontratatuta behar dituztelako behar itsusi gaizki ordainduetarako.

Hona beste datu hau: kanpoko emakumea hartu duten etxeetan gizonen %18k pasatzen du aspiragailua eta, aldiz, dena bien artean partitzen dutenen artean %40k. Mona Cholletek dioenez, “gauza bat da bikote batean bakea egotea, eta beste bat bake hori justua izatea”. ■

rik, lagunduko dien ezagupiderik... edo bertako nazionalitateak. André Gorz batek aspaldi kritikatu zuen zerbitzu sozialak garatzeko ordez gaizki ordaindutako enpleguak sustatzen dituen *contre-économie tertiaire* hau: “Neskame lanen garapenak eskatzen du berdintasun sozialik eza handiagotzea, biztanleriaren zati batek bereganatu ditzan jarduerak ondo pagatuak eta beste parteak makurtu dadin zerbitzari lanera”.

Le Monde Diplomatique bertan Julien Brygo kazetariak “Manila, Hong-Kong, Paris: Lanbidez mirabe” artikuluan deskribatu du zehazki filipinarren kasua. Urtean ehun mila baino gehiago dira Filipinetatik mundu osora partitzen direnak zerbitzari lanetara. Ferdinand Marcosen

garia ekin ziolarik estatuak langileak atzerri bidaltzeko politikari, 1974an, geroztik Filipinetako ekonomia-aren sostengu nagusi bihurtu dira. Gaur 8 milioi eta erdi filipinar baino gehiago daude munduan barreiatuta, hein handi batean emakumeak, hau da, populazioaren %10, langileen %20 baino gehiago.

Filipinarrak AEBetan, Kanadan eta Ekialde Hurbileko herrialdeetan ari ohi dira, Saudi Arabian nagusiki. Kexurik, bilerarik eta grebarik ezagutzen ez zaizkien morroi eta neskame filipinarrok entrenatzeko ehunka akademia daude, urtero 100.000 ikasle goiti biltzen dituztenak, ikastera etxetako garbiketan egiten, otorduetan atontzen, haurrak zaintzen, zaharrak artatzen, erosketak egiten...



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Bixente Serrano Izko

Artopila behintzat

Denek batera hilarazi eta berez hil zen” erran beharko? Itxuroso jaio zen orain zortzi urte eremu nafar baikor hura. Hiri kontzeptu berri bat ematen zuen, egoki integratua berezko paisaiarekin: mendi-mazelek, opakuek, eguterek, lautadek, ibaialdeek, soroek, parkeek, auzoek, kolore anitzetako landareek eta tankera desberdinetako eraikinek osaturiko multzo berri bat, ia idilikoa, proiektu baten maketa ezin erakargarriagoa irudi.

Tamalez, maketa hutsean gelditu zen proiektua. Elkarri mokoka hasi ziren laster diseinatzaileak. Ibaialdeetako estetikaren zaleak izan ziren lehenak projektutik ateratzen, beraiek erdi nahita, bertzeek erdi ego-tzirik. Mendi malkarrak zein hariztiak lehenesten zituztenek kolore berde uniformedunagoa eman nahi izan zioten eremu berriari, baina hauek ere laster hasi ziren norgehiagoka maketa berregokitze-rakoan. Harizti zaleak izan ziren hurrengoak projektutik irteten. Mendi-maldetako paisaiaren zaleek, nagusi berauek handik hona, malkarrak soro, parke eta muino suabe eta amultsu, baina betiere berde-berde bihurtuko zituztela agindu zuten, hasierako maketaren izpiritua akituko ez zutela. Gutxiago jada hasierako aniztasunetik, baina bazirudien zertxobait gordetzen zuela jaio orduko estilo prometagarri hartatik, eta ausaz egunen batean berreskuragarri izanen zela oraindik ere hura. Edonola ere, proiektuaren heriotza igartzen joaten zen pausoz pauso, maketak erakutsitakoa gauzatu ordez, osagaiak galdu ahala.

Bezero asko inguratu ziren projektura hasiera-hasieratik. Gainera, maketak aurkeztu zuten egitasmoak bazuen bertze erakargarritasun bat: diseinatzaileek ez ezik, bezeroek ere izanen omen zutela lekuri parte



JOSU SANTESTEBAN

hartzeko hura gauzatu orduan. Eta parte hartu zuten. Hori bai, diseinatzaileek uzten zieten neurrian bakarrik. Beraienak eta bortz egin zituzten etengabe diseinatzaile lehiakideen arteko bideak eta zubiak eraikitzen, hasierako maketa gauzatu ahal zedin. Alferrikako lana lehiakideak auzolanean jartze aldera; ez hain alferra, ordea, agonian dagoen proiektuari bizi-itxura eman eta esperantza guztiak ez iraungitze.

Alta, honez gero, bertze proiektu eta maketa berde-berde bat, berdetasun zale guztiak bildu nahi dituen, aurkeztu da, bertze bulego diseinatzaile batek eginga, eta hemen hizpide dugun aurrekoa oztopotzat baizik ikusten ez duena. Berde bainoago oraindik berdotza agertu arren, honetara bildu ziren harizti zaleak, eta orain berri ñirñir kilikagarria, eutsiezin izateraino kilikagarria ere, egin bide die muino berde

zaleei. Ataka estuan daude, hortaz, lehen projektura inguraturiko hainbat bezero, kolore anitzetako eremuaren zale horiek. Eta urrats bat aurrera ematea erabaki dute: berde guztiak batean bildu beharrean, berdetik kolore gehiagotara zabaltzeko beharra ikusten temati, euren bulego diseinatzaile propioa irekitzera deliberatu dira, lehen

proiektua eta haren alde gelditzen diren indarrak bizkortzeko asmoz. Zaila, baina merituzko asmoa, inondik ere.

Ez dakit. Bistan dena, maketa hura ez igeltsuz, ez plastilina ez zuten eraiki hasierako diseinatzaileek, ogi-ore bihurtu gabeko irinaz baizik. Ez dakit legamia injektatzeko gai izanen diren Zabaltzen estudio berri gogotsukoak eta ez dut nire burua bulego arautu batean sarturik ikusten. Baina, gaurko bi diseinu hauetako baten bezero izatekotan eta kolore anitzak agintzen zituen maketa lehenetsi nahian ni ere, argi daukat: ogirik ezean, artopila behintzat. ■

Ez dakit legamia injektatzeko gai izanen diren Zabaltzen estudio berri gogotsukoak eta ez dut nire burua bulego arautu batean sarturik ikusten. Baina, gaurko bi diseinu hauetako baten bezero izatekotan eta kolore anitzak agintzen zituen maketa lehenetsi nahian ni ere, argi daukat: ogirik ezean, artopila behintzat

ASTE HONETAKO

zozketa



Atxurra Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Arronategi auzoa, z/g
Bermeo, BIZKAIA

www.hotelatxurra.com

1

Bilboko Kafe Antzokia

Bazkaria
bi lagunentzat

Done Bikendi, 2
Bilbo BIZKAIA

www.kafeantzokia.com

2



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

3

Iruñeko Planetarioa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

4



Okatxu

2 kamiseta opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2288. Argia)

ATXASPI HOTELA

- Jabier Azkarate Ugalde (Ordizia)

BILBOKO KAFE ANTZOKIA

- Alfontso Vila Garzia (Santurtzi)

EKAIBERRI

- Manoli Zaldúa Muruaga (Hernani)
- Santos Mendia Agirre (Tolosa)
- Alberto Ugarte Otazua (Bilbo)

INGURU ABENTURA puenting

- Andres Odriozola Lizaso (Zarautz)
- Bolintxu Aek Euskaltegia (Basauri)
- Lierni Arrieta Irueta (Oizartun)

UNE akustikoak CDA

- Iñaki Azkune Mendia (Donostia)
- Ttakun Kultur Elkarte (Lasarte-Oria)
- Miren Garcia Dalmau (Hernani)
- Victoria Txurruka Azpiazu (Ondarroa)
- Asier Lizarriturri Martiarena (Aretxabaleta)

* Bisitaldiatarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

ZINEMALDIA EGUNERO

ARGIA.com-en



www.argia.com/zinemaldia-2011



→ Kritikak

→ Gomendioak

→ Bideoak zinegileekin

→ Zinemaldia iruditan

→ Euskal pelikulen webguneak

→ Twitter bidezko jarraipena

→ Programa

→ Trailerrak